

# Berrigara

## Osintxuko karidadea

Txekorraren  
sakrifizioaren  
kontrako salaketa

9/00 oraina euskaraz da




eman izena aek-n



# ELGETA

## Eraikuntzaren 2. faseari ekingo diogu laster



Kokapen ezin hobea  
Ikuspegi bikainak


- ▶ Etxebizitza zoragarriak
- ▶ Lokalak
- ▶ Garajeak

Informazioa

**943 76 11 23**

U.T.E. URIBURU





## Ke bajon!

Alex Barruso / Langilea

**H**emen dugu gure artean, abuztuaren azkeneko eta irailaren lehenengo egunetan gure barne egoera adierazteko, gaur egunean horrenbeste eta sakon-sakonetik irtenda, entzutun dugun espresioa: Ke Bajon!!!

Bai, proiektuz beteta zegoen hila-bete hau pasatu da. Atzean gelditu dira igotako mendiaren edertasuna eta lasaitasuna, gure gorputzak itsasoko uretan murgildurik jaso dituen gozamenak, hondartzako txiringitoen udako doinu martxosoak eta goiz aldera arteko manboak. Gogorra egiten zaigu gaurkotasunak eta daramagun bizimodu zoro honek lasaitasun eta alaitasunaren ondorioz bizi izan ditugun esperientziak estaltzea. Iku-sitako hiri eta herri ederrak, ezagutu-tako neska edo mutil zoragarria, gure bikote eta seme-alabekin egin ditugun jolas eta barreak... Ke bajon!!! Bai?

Ez, honelako oporrak izateko aukera izan dugunok, gauzak nola dauden ikusita, "bajoi" hori erraz gainditu beharko genukeela uste dut. Bajon, oporrik hartu ezin izatea da, langabezia da, gaisotasuna da, kartzela da. Hauentzako abuztua ez da izan hil berezia, aspaldiko bajoia baizik.

Ondo, oso ondo egin dugu meritako atsedeen hau topetara aprobe-txatzen, baina ikasi dezagun gure bajoiak erlatibizatzen. Laster dugu udazkena, lasaitasuna, hego haize goxoa, mendi-bideak orbelez osutako alfonbrak dituztela, gure basoak janzen dituzten kolore berriak ikustera gonbidatuko gaituztenak...

Eta udazken honek, bere edertasunekin disfrutatuz, beste negu hotz eta euritsu batean sartzeko prestatuko gaitu, gu konturatu gabe.

Ke bajon! Gutako askorentzat, Ke suerte! esango nuke nik.<

*"Bajon, oporrik hartu ezin izatea da, langabezia da, gaisotasuna da, kartzela da. Hauentzako guztientzako abuztua ez da izan hil berezia, aspaldiko bajoia baizik."*

■ barruan



**Jose Luis Elkoro**

Mahai Nazionaleko kide ohia

*"Transizio momentuan egon arren, bake prozesua sendotuz joango dela uste dut"*

16.



**Jesus Mari Biain**

BKEko futbol entrenatzailea

*"Mailaz jaistea ez zait burutik pasatu ere egin. Bestela, etxean geratuko nintzateke"*

21.



**Pedro Salegi**

Hargina

*"Iñaki Perurena izan da onena, edozein harritarra ondoen moldau delako"*

29.



## orain dela...

### BERGARAN GERTATUA

**1934.** Irailaren 2an Bergaran egindako biltzarrean, Euskadi eta Kataluniako udal ordezkariak bildu ziren.

**1935.** Irailaren 2an Hetruc-ek (Hermandad de Trabajadores de Union Cerrajera) lehen batzarra egin zuen. Langile gaiso-  
ei eta langileren bat hiltzean haren familiakoei laguntzeko sortu zen. Izan ere, 1944ra arte ez zen gizarte segurantzaren errejimen orokorrik izan.

### EUSKAL HERRIAN GERTATUA

**1921.** Abuztuaren 29an Nafarroako Aurrezki Kutxa sortu zen.

**1918.** Irailaren 5ean Eusko Ikaskuntzak Oñatin egindako Batzarrean Euskaltzaindia sortzea erabaki zen.

### MUNDUAN GERTATUA

**1939.** Irailaren 1ean Bigarren Mundu Guda hasi zen Alemaniak Polonia hartu eta gero.

## zozketak

### BONO LOTO

#### Eguakitza 27

5-13-21-27-31-42 (osag.7/itz.6)

#### Astelehena 30

2-8-31-37-47-49 (osag.28/itz.2)

#### Martitzena 31

11-18-28-34-40-41 (osag.43/itz.1)

#### Eguaztena 1

11-16-23-36-42-49 (osag.30/itz.1)

### PRIMITIVA

#### Zapatua 28

8-15-16-23-38-39 (osag.30/itz.7)

#### Domeka 29 Saritzarra

6-15-29-35-39-48 (osag.3/itz.7)

### ONCE

**Eguakitza 27:** 59.241 (103 seriea)

**Astelehena 30:** 44.177

**Martitzena 31:** 65.256

**Eguaztena 1:** 27.965

### BESTE BATZUK

**Osintxuko jaiak:** 4.177 (Mallorca bidaia)





## Eguraldia

Igeldoko metereologi behatokia



Hodeiak eta urdinguneak tarteak dira zeruan eta, as-  
tean zehar bezala, sargori egingo du asteburuan ere. Goiz partean garbiago izango da eta arratsaldeetan eta iluntzeetan ekaitz arriskua izango da.

## Ilargiaren aldiak

-  Ilbehera: irailak 2
-  Ilberri: irailak 9
-  Ilgora: irailak 17
-  Ilbete: irailak 25

## Eguzkia

Domeka, irailak 5



Sortu: 07:48



Gorde: 20:42

## Temperaturak eta euria Bergaran

Luis Mari Agirre

	max. °C	min. °C	euria l/m <sup>2</sup>
<b>Eguena 26</b>	27	20	-
<b>Eguakitza 27</b>	30	19	-
<b>Zapatua 28</b>	24	19	-
<b>Domeka 29</b>	28	15	-
<b>Astelehena 30</b>	25	14	-
<b>Martitzena 31</b>	28	14	-
<b>Eguaztena 1</b>	30	13	-


## bertako berbak

Juan Martin Elexpuru

### Astrapala

Prisa zalapartatsua. Hiztegi gehienek "alboroto, ruido, estrépito" diote; gaur egun oso gutxi entzuten den hitz honek zarata zentzu hori galdu samartua du hemen, eta zalapartarena du ia soilik.

- Gaur berandu jaiki non eta or ibili non goiz guztia astrapala baten.  
- Zuk astrapalia ugari ta lan gutxi.



JOSU ONIVA

## hamaika ikusteko jaio ginen!

### Mikrofonodun autoa

Bolantearen, azeleragailuaren eta frenoaren lekuan mikrofonoa duen Cycab izeneko automobila asmatu dute Singapurren, Nanyang unibertsitatean. Oraindik prototipoa besterik ez da Cycaben motorra eta bateria elektrikoek bidez dabil. Automobil txiki hau pertsona minusbaliatuek erabiltzeko egokia da eta baita aireportuetako ekipaia garraiatzeko ere.

## Farmaziak

### Eguakitza 3:

PUY. Barrenkalea 25. Tf. 943 76 16 87.

### Zapatua 4:

GUALLAR. San Antonio 5. Tf. 943 76 11 05.

### Domeka 5:

GUALLAR. San Antonio 5. Tf. 943 76 11 05.

### Astelehena 6:

CAMACHO. Oxirondo 4. Tf. 943 76 11 74.

### Martitzena 7:

PUY. Barrenkalea 25. Tf. 943 76 16 87.

### Eguaztena 8:

GUALLAR. San Antonio 5. Tf. 943 76 11 05.

### Eguena 9:

PUY. Barrenkalea 25. Tf. 943 76 16 87.

## Ogia

Domeka 5: Ogizun.

## Telefonoak

### OSASUNA / LARRIALDIAK

SOS deiak

DYA 943 78 71 5

Gurutze Gorria 943 76 55 7

Larrialdiak 943 46 11 7

Anbulatorioa (txanda) 943 76 24 4

Anbulantzia 943 55 49 5

Udaltzaingoa 943 77 91 0

Ertzaintza 943 76 53 4

Suhiltzaileak 943 78 28 0

Osasun Etxea 943 76 24 4

Arrasateko ospitala 943 03 53 0

Asepeyo 943 76 16 4

Pakea 943 76 13 4

Angiozarko medikua 943 78 90 2

Antzuolako medikua 943 76 62 2

### GARRIAKOAK

Euskotren 943 45 01 3

PESA 902 10 12 7

Taxiak 943 76 19 5

RENFE 943 28 35 5

### UDALA

Udaletxea 943 77 91 0

Udal Artxiboa 943 77 91 3

Igerilekuak 943 76 20 5

Kultur Etxea 943 77 91 5

Liburutegia 943 77 91 5

Mizpirualde Egoitza 943 76 13 0

### BESTELAKOAK

Epaitegia 943 76 14 5

Erregistroa 943 76 13 0

Jardun 943 76 36 5

Jubilatuena Etxea 943 76 21 4

Postetxea 943 76 26 5



# zorion agurrak



**Naiara Sanchez**  
Uztailaren 23an  
23 urte. Urte askotarako!  
Familiakoak.



**Uxue Rodriguez**  
Uztailaren 22an  
8 urte. Urte askotarako!  
Etxekoak, Eneritz eta Julen.



**Maider Uribe**  
Irailaren 5ean  
4 urte. Urte askotarako!  
Etxekoak.



**Alazne Basterra**  
Abuztuaren 10ean  
3 urte. Urte askotarako eta laztan bat maixia! Etxekoak.



**Iulen Iñurreta**  
Abuztuaren 4an  
urtebetetzea. Urte askotarako!  
Familiakoak.



**Olatz Ezkurra**  
Abuztuaren 1ean  
9 urte. Urte askotarako!  
Etxekoak.



**Andoni Badiola**  
Irailaren 6an  
7 urte. Urte askotarako!  
Etxekoak.



**Jone Aranburu**  
Abuztuaren 2an  
6 urte. Urte askotarako!  
Etxekoak.



**Yrene Markiegi**  
Abuztuaren 29an  
6 urte. Urte askotarako!  
Amama, aitita eta osaba Luis.



**Jon Barragan**  
Abuztuaren 5ean  
2 urte. Urte askotarako!  
Familiakoak eta bereziki Ane.



**Iñaki Mardaras**  
Abuztuaren 4an  
8 urte. Urte askotarako!  
Etxekoak.



**Ainhoa Mardaras**  
Abuztuaren 20an  
4 urte. Urte askotarako!  
Etxekoak.



**Victoria Muñoz**  
Uztailaren 26an  
30 urte. Urte askotarako!  
Maitetxu.



**Mertxe Araiztegi**  
Uztailaren 28an  
32 urte. Urte askotarako!  
Maite.



**Amaia Rivero**  
Irailaren 3an  
12 urte. Urte askotarako!  
Familiakoak eta lagunak.



**Jon Rivero**  
Irailaren 8an 7 urte. Urte askotarako!  
Familiakoak eta lagunak.



**Leire Aperribai**  
Abuztuaren 20an  
4 urte. Urte askotarako!  
Etxekoak.



**Iosu Elortza**  
Abuztuaren 10ean  
8 urte. Urte askotarako!  
Maite eta etxeok.



**Maialen Alkorta**  
Irailaren 2an  
13 urte. Urte askotarako!  
Etxekoak.



**Lorea Madinabeitia**  
Irailaren 9an 3 urte. Urte askotarako!  
Idoia eta etxeok.



**Eneko Arizaga**  
Irailaren 3an  
7 urte. Urte askotarako!  
Etxekoak.



**Arantza Arizaga**  
Irailaren 7an  
9 urte. Urte askotarako!  
Etxekoak.



**Yanire Marquez**  
Irailaren 2an  
11 urte. Urte askotarako!  
Familiakoak.



**Arrate Garaikoetxea**  
Irailaren 8an urtebetetzea. Urte askotarako!  
Etxekoak.

## ESKER ONA

### Enrique Lete Aldazabal

Bergaran hil zen  
1999ko uztailaren 10ean,  
76 urte zituela.



*Zure irribarrea eta kemena  
gogoratzeak ematen digu bizi-poza.*

*Hileta-elizkizunetara joandakoei  
eta samin-agurrak bidali zenizkigutenoi  
eskerrik asko sendikoen izenean.*

## ESKER ONA

### Alberto Lonbide Gisasola

Bergaran hil zen  
1999ko abuztuaren 26an,  
57 urte zituela.



*Hileta-elizkizunetara joandakoei  
eta samin-agurrak bidali zenizkigutenoi  
eskerrik asko sendikoen izenean.*

## hildakoak

### BERGARA

**Rafael Ramirez Nuñez**

Uztailak 19, 46 urte

**Aitor Gallastegi Epelde**

Uztailak 28, 62 urte

**Juan Davila Murillo**

Abuztuak 3, 82 urte

**Maria Gallastegi Mujika**

Abuztuak 11, 91 urte

**Maria Elejalde Plazaola**

Abuztuak 19, 84 urte

**Alberto Lonbide Gisasola**

Abuztuak 26, 57 urte

**Serapia Gallastegi Gardoki**

Abuztuak 31, 73 urte

## jaiotakoak

### BERGARA

**Miren Gutierrez Cerrejon**

Uztailak 9

**Ander Najera Larrañaga**

Uztailak 13

**Aritz Basterra Elortza**

Uztailak 17

**Garazi Ortuzar Ruiz de Asua**

Uztailak 19

**Xabier Zenitagoia Urrestarazu**

Uztailak 19

**Sara Beristain Salaberria**

Uztailak 21

**Malen Sampietro Alberdi**

Uztailak 22

**Olaia Zalakain Manso**

Uztailak 24

**Maddalen Mujika Intxausti**

Uztailak 29

**Andoni Moñux Garcia**

Uztailak 31

**Deiene Marquez Mendikute**

Abuztuak 7

**Jokin Mellado Guirao**

Abuztuak 16

**Haizea Casas Menor**

Abuztuak 26

**Paula Marcos Grande**

Abuztuak 29

**Aroa Elortza Payros**

Abuztuak 30

*Datorren asteko alean,  
IRAILAren 16ra artekoen  
zorion agurrak argitaratuko ditugu.*



**Julian Garitano,**  
"Aotxa"  
Abuztuaren 12an  
31. Urte askotarako!  
Botitxelikoak.



**Iñigo Alonso**  
Abuztuaren 22an  
32 urte. Urte askotarako!  
Botitxeli koadrilakoak.



## ANTZERKIA

► Buame taldearekin kafe antzerkia: **"Trainspotting & Stand up comedy"** gaur, eguakitzan, 23:00etan Elorrioko Ateneoan. Bihar, Arriolan, Sobradun taldearen **"No hay huevos"**, 21:00etan eta 00:30etan. Azkenik, domekan, Golden Apple Quartet taldearen **"Radio Golden"**, 22:00etan eta 00:30etan.

## MUSIKA

► **Lacrimosa eta Love like blood** taldeen kontzertua datorren zapatuan, hilak 11, Jam aretoan.

## ERAKUSKETAK

► **Antton Arrillagaren margoak** Nahikari tabernan.

## LEHIAKETAK

► **Aramaioko Sagitario Saria**, bidaiari handien literatura lehiaketa. Euskara eta gaztelera kontaketa onenak 120.000 pezetako saria eskuratuko du. Lanak aurkezteko epea irailaren 16an bukatuko da. Argibideak 945 44 50 16 zenbakian.

► **Jokin Zaitegi XIII. Itzulpen Laburren Sariketa**. Lanak jasotzeko epea urriaren 29an bukatuko da. Lehen saria 200.000 pezetakoa da eta

## ANTZERKIA

### Desperrados

**Noiz:** zapatuan, irailak 4, 22:30etan  
**Non:** Mariaren Lagundiko aretoan  
**Sarrera:** 1.000 pezeta. Langabetu txartela dutenentzat eta 26 urtetik azpikoentzat, 750.

Ados Teatroa taldeak milurte berriaren atarian gauden honetan girotu du "Desperrados" bere azken antzezlan. Ados Teatroa 1995ean sortu zen Tanttaka antzerki taldean gertatutako banaketaren ondorioz. Urte hartan haurrei zuzenduriko "Robinson Crusoe" antzezlan ekoiztu zuten eta urtebete beranduago "Lamiak" izenburuko komedia etorri zen. Orain, Jose Antonio Vitoria idazleak eta Garbiñe Losada taldeko zuzendariak idatzitako komedia garratz honetan hainbat langabeturen gorabeherak azaltzen zaizkigu. Politikariek dena primeran doala eta guztiontzat lana izango dela agintzen badute ere, egoera bestelakoa da: jende asko langabezian dago eta imajinarioa eta umorea ezinbestekoak dira egoera horri aurre egiteko. Sosak irabazi nahian, protagonistak jarrera gero eta komikoagoetan murgilduko dira. Nagore Aranburu, Ana Elor-

di, Koldo Losada, Ana Pimenta eta Anartz Zuazua aktoreak dira protagonista nagusiak eta gurutzatzen diren istorio ezberdinen atzean, eszenatoki gisa, Bilboko Guggenheim museoa agertzen da, gizarte aurerratuaren ispilu eta pertsonaien egoerarikiko kontraesana erakusten duela. Garbiñe Losada zuzendariaren arabera, "lanak unibertsalak diren gag komikoak dituen ez, Euskal Herrian zein beste edonon, ikusleak berdin jasotzen du guk transmititu nahi duguna".

Joxean Olaberriren soinu bandarekin batera, Koma taldearen abestiak tartekatzen dira antzezlanean zehar, pertsonaien errebeldiazko egoera islatu nahirik. Lanak ordubete eta berrogeita bost minutuko iraupena dauka.



"Desperrados" antzezlanean gag komikoak tartekatzen dira.

bigarrena 100.000 pezetakoa. Argibideak: 943 77 12 28.

## IKASTAROAK

► **Ardo dastaketa ikastaroa** irailaren 20, 22, 23, 27, 29 eta 30ean, 19:00etatik

21:00etara. Irakaslea Mikel Garaizabal enologoa. Plaza mugatuak. Izena emateko azken eguna irailaren 15a. Argibideak Jardunen: 943 76 36 61.

► **Bideo ikastaroa** irailaren 20tik azaroaren 4ra bitartean, astelehen, martitzen eta egue-

netan, 17:00etatik 20:00etara. Argibideak: 943 77 91 58.

► **Yoga eta brikolaje ikastaroa** emakumeentzat. Izen-ematea (3.000 pezeta) Irizar jauregiko HHI-EPA ikastetxean irailaren 6tik 10era, 10:00etatik 13:00era.

*Agirrebeña*

94787XEA



Ibarra kalea 2 • Tf. 943 76 20 38

**MUJIKA** UNIFE KOOPERATIBAKO KIDE FERRETERIA

BERGARAKO ENPRESA ETA HERRITARREN ZERBITZURA

Bidekurutzeta 8 - 943 76 28 67 BERGARA



## DEIAK

► **Gazte lokalaren** aldeko taldeak dei egiten du zapatuan, hilak 4, 16:00etan Zabalotegiko lokalean egingo den batzarrean parte hartzeko.

► **Unbeko Amabirjinaren eguna** bihar zapatua, hilak 4, Unbe mendatean, Bilbotik 12 bat kilometrora. Goizeko 7:00etatik 14:00etara bitartean arrosarioa izango da eta 17:00etan prozesioa.

► **Odol ateraldia** eguaztenean, hilak 8, 18:30etan Seminarioko lokalean.

## OHARRAK

► **Ura, estolderia eta zaborren tasa** errezibo bakarrean kobratu izan dira orain arte. Programa informatikoaren aldaketak direla eta, hemendik aurrera bi errezibotan kobratuko dira: ura, estolderia eta BEZa errezibo batean eta zaborrak bestean. Tarifak ez dira aldatuko.

► **Ondasun Higiezin**en Gaineko Zergaren (rustika eta urbanako kontribuzioa) eta Ekonomi Jardueren Gaineko Zergaren erreziboak ordaintzeko borondatezko epea azaroaren 10era arte izango da zabalik. Borondatezko epea amaitu ondoren, exekutibako epeari hasiera emango zaio. Argibide gehiagorako: 943 77 91 64.

► **Aranzadi Ikastola.** Haur hezkuntza, lehen hezkuntza eta DBHko ikasleak hilaren 8an, goizez bakarrik hasiko dira irailaren 20ra arte. DBH 1. mailakoek eguaztenean 9:00etan izango dute aurkezpena eta 2. mailakoek 11:00etan. Bestalde, bi urtekoen gurasoen bilera izango da irailaren 8an, 3 urtekoak irailaren 7an bilduko dira eta lehen mailakoak 6an, guztiak Plazako 3. pisuan 18:30etan.

► **Mariaren Lagundia.** Ikasturte hasiera ondoko egunetan izango da: irailaren 9an DBHkoak; 10ean lehen hezkuntzakoak eta haur hezkuntzako 4 eta 5 urteko ikasleak; irailaren 13an, Lanbide Heziketako 3. mailakoak; 15ean haur hezkuntzako 3 urtekoak; 17an Lanbide Heziketako 2.ekoak eta Goi Mailako Lanbide Heziketakoak; eta, azkenik, hilaren 22an, haur hezkuntzako 2 urteko ikasleak. Lehendabiziko egunean guztiak 10:00etan hasiko dira.

► **Musika Eskola.** Solfeo eta armonia klaseak irailaren 8an hasiko dira (ordutegiak atarian jarrita daude). Bestalde, instrumento klaseak irailaren 20an hasiko dira eta ordutegiak irailaren 13tik aurrera jarriko dira Musika Eskolako sarreran.

► **Udal Euskaltegian** matrikula epea zabalik izango da irailaren 15era bitartean. Argibideak euskaltegian bertan, Zabalotegi 13an, bulego orduetan: 943 76 44 53.

## Z I N E A

## KARTELDEGIA

**BERGARA. Novedades**  
**The mummy (La momia)**  
Eguakitza: 22:30.  
Zapatua: 17:00, 19:30, 22:30.  
Domeka: 17:00, 19:30, 22:15.  
Astelehena, ikuslearen eguna: 19:30.

**ARRASATE. Alai zinema**  
**Vampiros**  
Eguakitza: 22:00.  
**Los lobos de Washington**  
Zapatua: 17:00, 19:30, 22:00.  
Domeka: 17:00, 19:30, 22:00.  
Astelehena: 19:00, 21:30.  
Martitzena, ikuslearen eguna: 19:00, 21:30.

**EIBAR. Unzaga**  
**La amenaza fantasma**  
Eguakitza: 22:15.  
Zapatua: 17:00, 19:45, 22:15.  
Domeka: 17:00, 19:45, 22:15.  
Astelehena: 19:30, 22:15.  
Martitzena: 19:30, 22:15.  
Eguaztrena, ikuslearen eguna: 19:30, 22:15.

**EIBAR. Rialto**  
**Soldado universal**  
Eguakitza: 22:15.  
Zapatua: 17:00, 19:30, 22:15.  
Domeka: 17:00, 19:30, 22:15.  
Astelehena: 19:30, 22:15.  
Martitzena, ikuslearen eguna: 19:30, 22:15.

**ELORRIO. Arriola**  
**"Metropolis" filmea Joxan Goikoetxearen musikarekin**  
Eguena: 20:15.

**AZKOITIA. Baztortxo**  
**Diez maneras de odiarte**  
Eguakitza: 22:00.  
Zapatua: 22:00.  
**The Matrix**  
Domeka: 17:00, 19:30, 22:00.  
Astelehena: 20:00.

**OÑATI. Santana**  
**The Matrix**  
Eguakitza: 22:30.  
Zapatua: 19:30, 22:30.  
Domeka: 19:30, 22:30.  
Astelehena: 19:30.

## THE MUMMY (LA MOMIA)

**Zuzendaria:** Stephen Sommers.  
**Aktoreak:** Brendan Fraser, Rachel Weisz, John Hannah.

Takiletan izugarriko arrakasta lortu du efektu berezi ikusgarriak dituen filme honek. Rick O'Connell abenturazalea (Brendan Fraser) El Cairoko espetxean dago, heriotza zigorra jasotzeko zain. Britainia Handiko egiptologo baten eta honen anaiaaren laguntza, kartzelatik ihes egitea lortuko du. Hain zuzen ere, Hamunaptra hiria non dagoen dakien bakarra da Rick, eta bertako altxorren bila abiatuko da. Amerikarren lehia izango dute baina...



## LOS LOBOS DE WASHINGTON

**Zuzendaria:** Mariano Barroso.  
**Aktoreak:** Javier Bardem, Pepe Sancho, Ernesto Alterio.  
Mariano Barroso zuzendariak (*Mi hermano del alma*, *Extasis*) galtzaileei buruzko filmea errodatu du oraingoan. Bigarren mailako gaizkile batzuk elkarrekin lotzen dituen hari bakarra, adiskidetasuna alegia, moztera behartuta egongo dira... Bingen Mendizabal gasteiztarraren musikarekin.

BERRIGARAK ez du gerta litezkeen emanaldi aldaketan erantzukizunik.

Ikastaro teoriko trinkoak euskaraz eta gaztelaniaz.  
Ziklomotorreko lizentzia astebetean. AZTERKETARIK GABE!

Gaindi ezazu autoaren azterketa teorikoa 16 urterekin!  
Zatoz eta informa zaitetz!

**ARRAÑAGA**  
A U T O E S K O L A

Tf. 943 76 16 63



**Raul Luque, Pazkuetan larriki zauritua gertatu zen 19 urteko gaztea Arrasateko Aita Menni eritetxean ingresatu zuten aurreko astean. Jarraitu beharreko tratamenduaren gastuei aurre egin ahal izateko, Raulen lagunek hainbat ekimen antolatzeari ekin diote. Jorge Luquek bere anaiaren egoeraren berri eman digu.**

**G.** Zela dago anaia?

**E.** Istripua gertatu zenetik bere egoerak hobera egin du, eta familiakoak itxaropentsu gaude, oraindik ere hobera egingo duela ikusten dugulako. Oso hilabete gogorrak izan dira hauek: anaiak hiru hilabete eman ditu Donostiako Arantzazu ospitalean eta gurasoak gau eta egun egon dira berarekin. Hasierako sustoaren ondoren, animo aldetik hobeto gaude; gainera, eskertzekoa izan da jendeak azaldutako interesa. Mikel Vicenteren gurasoek ere laguntza handia eman digute.

Lehenbizi zainketa berezietarako gelan egon zen anaia eta handik erreabilitazioa egiteko gela batera eroan zuten. Antibiotikoak eta janaria zunda bidez eman behar izan dizkiote eta zundak kendu eta trakeotomia itxi bitartean ezinezkoa zen Aita Mennin ingresatzea.

**G.** Zergatik erabaki da anaia Aita Mennira eramatea?

**E.** Aita Menni askoz hobeto gertatuta dago buruko gaisoak jasotzeko. Nahiz eta eritetxe pribatua izan, aukerarik onena anaia Aita Mennin ingresatzea zela ikusi genuen, dituen medioengatik eta etxetik ere hurbilago dagoelako. Hilabeteko gastuak 900.000 pezeta inguru-

JORGE LUQUE

Pazkuetan zauritutakoaren anaia

*“Aukerarik onena anaia Aita Menni eritetxera eramatea zen”*



Jorge Luqueren anaiak hiru hilabete eman ditu Donostian ingresaturik.

koak dira, eta ez dakigu anaiak zenbat denbora eman beharko duen bertan. Mikel Vicenteren esperientzia ere ezagutzen genuen eta horrek animatu egin gintuen anaia ere Arrasatera eramateko. Ezagutzen ditugun kasu guztiak positiboak dira eta anaiak ere aurrera egingo duela uste dugu. %100ean errekerperatu ez

*“Jendearen erantzunari dagokionez, hor dago Mikel Vicenteren kasua. Oraingoan ere beste horrenbeste espero dugu”*

arren, bere kabuz baliatu ahal izateko gauza izateko espero dugu.

**G.** Zer esan dute Aita Menniko medikuek?

**E.** Gorputzeko ezkerreko alde osoa erabat errekerperatu du, baina eskuineko aldearekin arazo gehiago ditu. Orain urte batzuk eskuineko ukondoan ebakuntza egin zioten eta horretatik agian, alde horretako errekerperazioa oztopatu egin du. Buruari dagokionez, erantzunak hobeto dago. Familiaren eta lagunaren laguntza ezinbestekoa izan da. Dagoeneko hasi da zeozer ahasi gaitzen eta laister berba egiteko hasiko dela espero dugu. Oroimen aldetik ere dena gogoratzen du; hori dela eta, eta baikor gaude. Medikuek hilabete behin ematen dute gaisoaren egoeraren berri, eta, beraz, irailaren bukaerara itxaron behar izan dugu beren iritzia jakiteko.

**G.** Raulen lagunek diru biltzeari ekin diote. Zer nahi du erantzuna jasotzea espero duzue?

**E.** Jendearen erantzunari dagokionez, hor dago Mikel Vicenterekin gertatutakoa. Oraingo honetan ezinbesteko horrenbeste espero dugu, herriko semea delako eta edozeini gerta dakiolako. Horrelako istripuak Oraingoan, behintzat, ezinbesteko erantzun ona jaso dugu laguntza eskatu dugun tokietan. Aldez aurretik laguntza eskertu nahi dugu.

**G.** Udaleko ordezkariekin egon zarete istripuaren gainean berba egiten?

**E.** Anaiaren koadrilakak egon ziren, hurrengo terako beharrezko segurtasun neurriak har daitezke urtero istripuren bat gertatzen baita txoznetan. Horrelako zoritxarrik berriz gertatzea nahiko genuke.



# Kofraixetako txekorraren sakrifizio publikoa baimentzea salatu dute

## ANPBA animalien aldeko erakundeak isunak ipintzea eskatu du

**Herrian oso errotuta da-  
goen usadio zaharrari  
egindako erasotzat har-  
tu dute osintxuarrek  
ANPBA izeneko anima-  
lien eskubiden aldeko  
governuz kanpoko era-  
kunde madrildarrak  
egindako txekorraren  
sakrifizioaren aurkako  
salaketa.**

Egun hauetan hainbat komunikabidetan agertu den notizia denek izan dute hizpide. Zahar eta gazte, osintxuar guztiek darabilte ahoz aho aurtengo Kofraixetan txekorraren sakrifizioa dela eta, gertatutakoa. "Legeak ez al du tradizioa errespetatu behar?" esan dio BERRIGARARI Karlos Ostolaza Osintxuko parrokoak. Beste iritzi batekoa da Alfonso Chilleron ANPBako presidentea: "poliziak txekorraren sakrifizioa ekidin behar zuten, tradizioaren izenean horrelakoak egitea ez baita zilegi" adierazi du.

Karlos Ostolazaren us-  
tez, Karidadearen tradizioa  
gorde egingo da, aurreran-  
tzean txekorra kalean sakri-  
fikatu ala ez: "Karidadearen  
zentzua da garrantzitsuena,  
kanpotarrei eta premia du-  
tenei jaten ematea".

### BI MILIOI ETA ERDI PEZETA

Honez gero askok jakingo duzuen moduan, ANPBA erakundeak Victoriano Gallastegi alkatearen kontrako salaketa jarri zuen martitzenean Osintxuko txekorraren sakrifizioaren ikuskizun pu-



Artxiboko argazkian, orain dela urte batzuk egindako txekorraren sakrifizioaren irudi bat.

blikoa onartzeagatik. Era berean, joan zen zapatuan sakrifikatu zen *Beltxa* txekorra hil zuten Rafael Zabaleta eta Rosario Vaquerizaren kontrako salaketa ere egin du. Bergarako agintari nagusiari eta txekorra hil zutenei 2,5 milioi pezetako isuna ipintzea eskatu du.

### BEZPERAN BIDALITAKO FAXA

ANPBA erakundeak hainbat herritako jaietan egiten diren era honetako ospakizunak salatzeke ohitura du eta joan zen eguakitzean faxes bidali zuen Bergarako Udaletxera, alkatearen ize-nean. Biharamonean, Osintxun egitekoa zen txekorraren sakrifizio publikoa ez baimentzea eskatzen zion

erakundeak alkateari. Abereen babeserako Eusko Jaurlaritzaren urriaren 29ko 6/1933 legeak dioenaren arabera, "toki publikoetan animaliak sakrifikatzea debekatuta dago". Bestalde, ANPBA erakundeak dioenez, Jaurlaritzako Herrizaingo Sailaren Joku eta Ikuskizunen Zuzendaritzak ez ei zuten ekitaldia baimendu.

Victoriano Gallastegi alkateak BERRIGARARI adierazi dionez, "udaltzainak bidali nituen Osintxura antolatzaileei ohartarazteko txekorra kalean hiltzea debekatuta zegoela eta horrela jasota dago Alfonso Alonso udaltzainburuak egindako txostenean". Udaltzainburua Osintxuko Jai Batzordeko kideekin bildu zen eguaki-

tzean. Txekorra kalean hil beharrean, baserri edo garen batean hil eta gainontzeko erritua ohiko tokian egitea eskatu zien Alonsok Jai batzordekoek. Hauek eskaria aintzat hartu zuten, baina ekitaldia antolatzen duen Osintxuko Karidadearen Kofradiakoek ez zeuden ohiturari uko egiteko prest.

Honenbestez, ohiko moduan egin zen txekorraren sakrifizioa, zapatuan, goizeko 8:30ak aldera. Azken urteotan Iñaki Labakak egin du matarife lana, baina aurtun Rafael Zabaleta eta Rosario Vaqueriza aritu dira. Goienetxe baserrian Leona Larrañagak hazitako 11 hila-beteko limusin arrazako *Beltxa* txekorrak 247 kilo pisatu zituen kanalean.





Kanposantuan lurperatzeko toki gutxi dagoenez, 105 nitxo berri egingo dituzte urtea amaitu baino lehen.

ARTXIBOA

## Matxiategiko kanposantuan 105 nitxo eraikiko dituzte

### Bestalde, autobus geltoki zaharra aurki botako dute

**Abuztuko oporren** aurreko azken Plenoan Matxiategiko kanposantuan 105 nitxo berri egiteko oinarri administratibo partikularren plegua onartu zuen Udalbatzak. Lanak adjudikatuzko erabiliko den prozedura lehiaketa irekiarena izango da. Obren aurrekontua 8.584.269 milioi pezetako da eta lanak amaitzeko epea bi hilabete eta erdikoa, tokiaren egjatzatze akta sinatzen denetik aurrera.

Lanak aurki adjudikatuko ditu Udalak eta, beraz, urte amaiera baino lehen nitxo berriak eginda egotea espero dute.

Bergarako kanposantuan hildakoak lurperatzeko dagoen toki eskasiaren arazoa aspaldikoa da. Eraikiko diren 105 nitxo berriekin arazoari irtenbidea eman nahi diote, San Joxepen kanposantu berria eraikitzeko proiektua aspaldi baztertua baitauka Udalak.

Bestalde, Torrekua aurrealdean eraikiko den autobus geltokirako baldintza pleguak ere onartu zituen Udalbatzak. Aurrekontua 101.833.236 milioi pezetako da, eta zazpi hilabeteko epean egin beharko dira lanak. Asmoa lanak udazken honetan hastea da. Beheko estazioko eraikuntza irailean bertan botatzeko asmoa dute. Geltoki berria eraiki bitartean, autobusmarkesinak jarriko dituzte.

## Raul Luque gaztearen aldeko hainbat ekimen abian

**Raul Luque** joan zen maiatzaren 25ean Pazkuetan, Bideberritik errekarra jausi zen gaztearen familiari laguntzeko hainbat ekimen bultzatuko dituzte bere koadrilakoek. Raulek, zortzi metroko eroriarre ondorioz, burmuinean zauriak jasan zituen, eta Donostiako Arantzazu-ko ospitalean eman dituzten hilabeteak. Joan zen astean alta eman zioten, eta bere familiak Aita Menni ospitalera eraman du.



Egonaldiaren kostuari aurre egiteko ekimenak antolatuko dituzte Raulen koadrilakoek zozketa, aerobitoia, moda-desfilea eta abar. Denerua emanez lagunduko nahi dutenendako konpostuak ere zabaldu dituzte.

**Euskadiko Kutxa:**  
3035 0009 10 0090047688  
**BBV:**  
0182 0360 32 0200090103  
**Central Hispano:**  
0049 2929 23 2694020485  
**Kutxa:**  
2101 0070 89 0122744501  
**Banco Santander:**  
0085 0897 53 0000392926  
**La Caixa:**  
2100 2414 14 0200010937  
**Banco Guipuzcoano:**  
0042 0046 08 0236757735

Paper pintatuak - Pinturak

**A. ZANGITU**

ORDUTEGIA:

8.00-13.00 eta 15.00-20.00

☎ 943 76 19 54 BERGARA  
IRU: ☎ 943 79 11 71 ARRASATE



BOKATEGIA

Simon Arrieta plaza 2A behea ezkerre.  
Tf. 943 76 71 19

**Sugoi**

ERLOJUAK, ARTIKULU  
ELEKTRONIKOAK,  
KALKULADORAK...

Irizar pasealekua 2 behea  
☎ 943 76 59 54 BERGARA

**KONDE**



Burdinate 1  
☎ 943 76 02 57



# EAJ, EH eta EAk elkarrekin gobernatuko dute datozen lau urteotan Bergaran

Datorren astean gobernu akordioari buruzko azalpenak emango dituzte

**Ekain eta uztailen zehar EAJ, EA eta EHren artean izandako negoziazioen ondoren, abuztuko oporren bezperan egindako Osoko Bilkuran eratu ziren legealdi berriko batzorde informatzaile iraunkorrak.**

Udal gobernu osatzeko hiru alderdi abertzaleen arteko negoziatioak ez dira errazak izan, baina alde guztiek aitortu dutenez, pake prozesua bultzatzearen ezberdintasunak alde batera laga dituzte elkarrekin gobernatu ahal izateko. Hala ere, EAJ-EA eta EHren ordezkariak datorren astean egingo duten prentsaurrekoan azalduko dituzte adostutako puntuak eta izan dituzten ezberdintasunak.

## PSE-EE ETA PP OPOSIZIOAN

Gobernu EAJ, EA eta EHk osatuko dute eta PSE-EE eta PP oposizioan izango dira. Gobernu Batzordean EAJko hiru ordezkari, EHko bi eta EAko bakarra izango dira. Victoriano Gallastegi alkateak eta beste bost alkateorde hauek osatuko dute Gobernu Batzordea: Kontxi Irizar

(EA), Koldo Pereira (EAJ), Juan Jose Arrieta (EAJ), Jesus Mari Garitano (EH) eta Mikel Eguren (EH). Gobernu Batzordea astelehenero bilduko da eta ohiko osoko bilkurak hilean behin egingo dira, eta ez hiru hilabete behin, orain arte bezala.

Udal gobernu organuak izendatzeko bozketa guztietan PSE-EEko zinegotziak (aurreko legealdian gobernuan izan zen) kontra bozkatu zuen, eta PPkoa abstenitu egin zen.

Bestalde, Deba Garaiko Mankomunitateko Bergarako Udalaren ordezkariak honako hauek izango dira: Victoriano Gallastegi (EAJ), Koldo Pereira (EAJ) eta Martin Guridi (EH). Oraindik erabakitzeko daude Kutxako ordezkariak.

## ZAZPI BATZORDE INFORMATZAILE

Legealdi berrian zazpi batzorde informatzaile izango dira. Horietako bat, Kulturakoa, beste lau azpibatzeretan banatuko da eta hauetako batean, Euskara eta Hezkuntza, batzorde buru bana izango da: bata Euskarakoa eta bestea Hezkuntzakoa. Batzorde buru guztiek parte

hartu ahal izango dute Gobernu Batzordearen bilere-tan, baina ez dute botorik izango. EAJk sei batzorde buru izango ditu, EHk hiru eta EAk bi. Batzorde informatzaileak ere astero bilduko dira, eta irekiak izango

dira. Aurreko legealdiko banaketarekiko, oraingoan beste bat sortuko da: Ingu-rugiro Batzordea. Bestalde, Hezkuntza eta Euskara, esan bezala, banatu egingo da, eta bakoitzak bere arduraduna izango du.




**V. Gallastegi**  
Hazienda



**Juanjo Arrieta**  
Gobernazioa eta Zerbitzuak



**J.A. Etxeberria**  
Obra eta Hirigintza



**Aitor Aranzabal**  
Ingurugiroa



**Kontxi Irizar**  
Osasuna, Enplegua eta Gizarte Araozak



**Felipe Altuna**  
Baserri auzoak



**Iñigo Alberdi**  
Jarduerak, taldeak, gazteria eta jaiak



**Yolanda Juaristi**  
Euskara



**Mikel Eguren**  
Hezkuntza



**Koldo Pereira**  
Turismoa eta Ondare Historiko Artistikoa



**N. Amaia Zabala**  
Kirolak



# LASAGABASTER

ZURE KONFIDANTZAKO DENDA.

Zerkaosteta 1 eta 2 ARRASATE Tf. 943 79 27 27 / 943 79 13 55



INMUEBLE ETA FINANZA AGENTZIA

Bergara / Arrasate / Elgoibar  
Teleforo Aranzadi 2 behea  
943 76 21 80 / 943 76 06 37



# Berrigara

377 zenbakia.  
1999ko irailaren 3a.

**Errotalde Jauregia. 20570 Bergara**  
Telefona: 943 76 03 97  
Faxa: 943 76 29 77  
Argitaratzailea: **JARDUN** Elkarte

**Zuzendaria:**  
Eneko Azkarate.  
**Erredakzioa:**  
Eneko Azkarate, Edu Mendibil.  
**Maketazioa:** Iñaki Iturbe.  
**Publizitatea:** Uxue Zabaleta.  
**Harpidetzatzailea:** Itziar Kortabarria.

**Testuen zuzenketa:**  
Estepan Plazaola, Alex Labaien,  
Maripi Laskurain.

**Erredakzio kontseilua:**  
Miguel Angel Elkoroberezar,  
Alex Labaien, Gorka Elortza.  
**Komikiak:** Bittor Rodriguez,  
Gorka Ortega & Jon Alvarez,  
Alex Ugaldel, Unai Azkarate.

**Kolaboratzaileak:**  
Juan Martin Elexpuru, Josu Okina,  
Luis Mari Agirre, Imanol Sorondo.

**Banaketa:** Txantxangorri taldea.  
**Inprimategia:**  
Gertu Koop. Elk. (Zubillaga. Oñati).

Azaleko irudia: Berrigara.

Tirada: 5.200 ale.  
Copyright: BERRIGARA.  
Lege gordailua: SS 50/91.  
ISSN: 1130-6599

BERRIGARA ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

**Erakunde hauen laguntza:**



Begarako Udala



Gipuzkoako Foru Aldundia



Eusko Jauriaritzako Kultura saila

## gutunak

Gutunak Berrigarara helarazteko: Berrigara astekaria, Errotalde Jauregia z/g 20570 Bergara. Faxez: 943 76 29 77. Posta elektronikoz: berrigara@topagunea.com. Identifikatu gabeko mezurik ez da onartuko.

### HERRITAR GUZTIOI

Kaixo! Raul Luqueren lagunak gara, 19 urteko gazte bergararra. Raulek, pasaden maiatzaren 25ean, Pentekoste jaietan, istripu larria izan zuen.

Goizeko laurak aldera, Raul beste lagun batzuekin batera, Bideberrin kokaturik zeuden txoznetan dantzan ari zelarik, oreka galdu zuen bat-batean eta Bideberrin paseoa eta Deba ibaiaren bereizten dituen horma jo zuen. Aipatutako horma oso neurri txikikoa denez, ezin izan zion bere pisuari eutsi eta 8 metro inguruko altuera batetik ibaira erori eta burmuinean zauriak egin zituen. Honen ondorioz, koman sartu zen eta sei egun pasa arte ezin izan zen atera.

Hilabete hauetan Raul Arantzazu eritexean izan da, baina joan zen astean jasozuen alta; izan ere, ospitale honetan ez daukate mota hauetako gaisoen errehabilitaziorako material egokirik.

Bestalde, aipatu beharra dago Gizarte Segurantzak mota hauetako gaisoendako zentru espezializaturik ez duela. Eta Raulek horrelako zentru baten premia dauka.

Gogoratuko duzue, orain dela gutxi, Bergarako beste gazte batek ere, Raulek dituen antzerako zauriak izan zituen eta hauetako zentru batean izan zen, Arrasateko Aita Menni hain zuzen ere. Hau dela eta, bere familiari aukerarik egokiena iruditu zaio.

Zentru honetako egoaldia ez da batere merkea, ordea; gutxi gora-behera hileko milioi bat pezeta kostatzen da eta kostu hau, zailtzarik gabe, oso handia da edozein familiarentzat, baita Raulen familiarentzat ere.

Raul joan zen astetik dago Aita Menni ospitalean eta ez dakigu zenbat denbora beharko duen osatzeko. Raul guztiz sendatuko den ziurtasunik ere ez daukagu, baina gure esku dagoen guztia egingo dugu

bere bizitza berregiteko aukera izan dezan eta Bergaran, gure artean, lehenbailehen izan dadin. Gaur Raul gertatu zaiona, bihar edonori gerta dakioko eta.

Honengatik guztiagatik jo eta ke lanean hasi gara hainbat ekintza antolatzen, bere egoerak dakartzen gaituei aurre egiteko asmoz. Eta Bergarako herriari elkarlaguntza eta partehartzea eskatu nahi dizkiogu, gure antolatutako ekintzak aurrera atera ahal izateko, bestela zuten laguntzarik gabe gure lana alperrik izango litzateke.

Bukatzeko, gogoratu nahi dizuegu herrian dauden hainbat banku eta aurrezki kutxatan kontu korronte zenbakiak zabaldu ditugula, nahi duzuen guztiok diru-sarrerak egin ditzazuen.

Aldez aurretik eskerrak emanez, gure eskaerak kontuan hartuko dituzuelakoan agurtzen zaituztegu.

Raulen lagunak

## tira biraka: bittor rodriguez





■ atrebentzia ezpada

■ bai, esan!

## Ze pentsatzen jatzu animalixen aldeko erakunde batek Kofraixetako txekorraren sakrifizioa salatzea?



Gertaerak salatu edo txalotzeko: 943 76 03 97. Identifikazioa beharrezkoa.



**Julian Ezenarro**

Gerra denboran ez, ostean, beti hemen txahala hil da. Niri ondo pentsatzen jat orain arte bezala jarraitzea, denuntzia jarri dabena jaixa apurtzera etorri da eta.



**Jesusa Osoro**

Penagarrixa izango zan hori kentzea, aspaldikoa da eta. Kalian egin arren, sakrifizioa txukun egitten da. Lehen, gaiñera, txahala base-rixtetara partidu egitten zen.



**Guillermo Azkarate**

Nik uste dot txorrada haundi bat dala, zezen plazetan hiltzen dabe, ba! Ez jako ñori kalte egitten eta ez notsake denuntzia horri kaso handirik egingo.



**Piedad Gallastegi**

Gaizki. Txikittan be goizean goiz jaikitzen giñen txahala ikusteko. Begiratzea dauke ondo mataderoetan gana-dua zela tratatzen daben.



**Unai Alberdi**

700 bat urteko tradiziñoa da eta animalixak zelan ez daben sufritzen, ez jat hain gogorra pentsatzen. Mantentzearen aldekoa naiz.



**Maritxu Etxeberria**

Zer dauka, ba? Plazetan zezenak hiltzen dittue ba, gehixago sufridu eraginda. Haura okerrago ikusten dot nik. Berdin jarraituko neuke.

### TURISTAK BERGARAN ETA DENA ITXITA

**Mikel Agirre** izan da BERRIGARAKO erredakzioan aste honetan. Mikelek komentario gazi-geza egin digu udan Bergaran izaten den turismoa dela eta. Alde batetik, pozik dago Mikel aurten turista ugari izan delako Bergaran. Gainera, nekazal turismorako baserria ere ireki da Lamaño Etxeberri eta han ere izan da bisitaririk. Herrira gerturatu direnek ez dute behar bezalako harrerarik izan, ordea: jatetxeak itxita, gozotegiak itxita, tailerrak itxita... Egoera horren aurrean soluzio-aren bat topatu beharra dagoela dio Mikelek: guardia sistema erabili, udalak diru sariak eman udan lan egiten duten zerbitzuetako langilei...

# Ardo dastaketa

## IKASTAROA

Ardoa eta bere inguruko gai guztiei buruzko ikastaroa Teoria eta praktikarekin



**Irakaslea** Mikel Garaizabal, enologoa eta sumillerra

**Egunak** Irailaren 20, 22, 23 eta 27, 29, 30 (astelehenak, eguaztenak eta eguenak)

**Ordutegia** 19:00etatik 21:00etara. Lehen ordua teoria eta bigarrena dastaketa

**Lekua** Kartzela Zaharra

**Prezioa** 5.500 pezeta Jarduneko bazkideendako; 6.000 gainontzekoendako.

**Gehienezko kopurua** 24 lagun

**Izena emateko azken eguna** Irailaren 15a

**Informazioa eta izena ematea** 943 76 36 61 / 76 08 19.





■ adituen esanetan

## Edadetuen loa

Loaren alterazioak dira, memoria arazoekin batera, edadetuen kontsulta gai nagusienetakoak. On-do lo egitea ariketa fisikoa eta elikadura egokia bezain garrantzitsua da bizitza osasuntsua izateko. Familiak eta zaintzaileek edadetuen berezko ezaugarriak (ar-lo psikologikoan zein fisiologikoan) ezagutu behar dituzte. Ingresatuta daudenen kasuan esaterako, kon-tuan izan behar da as-ko egunsentian, eguzkia irtetzen denean lasaitzen direla eta or-duan hasten direla hobeto lo egiten. Beraz, ez da komenigarria izaten medika-zio bat hartzeko edo gosaria hartzeko jende hori esnatzea. Arratsaldeko lehen orduko siestatxoa ere errespetatu egin behar da. 10-20 minutu bitarteko siesta nahikoa izan daiteke. Pare bat orduko siesta eginez gero, gaueko loa laburragoa izango da derrigorrez.

Adinean aurrera, loa aldatuz doa: gero eta gehiago kostatzen da lo hartzea eta loa arinagoa da. Zenbat eta zaharragoa izan, orduan eta motzagoa da



AMAGOIA MURUAMENDIARAZ

Mediku gerontologoa

*“Bost eta sei ordu bitartean lo egitea nahikoa izan daiteke, edadetuek ez dute izaten aktibitate fisiko askorik eta”*

faktore izaten dira tartean: gertuko-heriotza, jubilatutakoan estatus profesio-nala galtzea, inguruko gauzengan interes eskasagoa azaltzea edota hainbat gaisotasun. Lotarako ordutegi bat finkatzea beharrezkoa da. Era berean, ohera joan aurretik dutxa bat edo bainu bat hartzea eskertuko dugu. Baso bero bat esne loaren eragilea izan daiteke, esneak loa bultzatzen duen triptofano izeneko sustantzia duelako. Baleriana edo pasiflora infusio naturalak hartzea ere lagungarria da.<

loaren fase sakona deritzona. Loaren kantitatea baino kalitatea aldatzen da. Bost eta sei ordu bitartean lo egitea nahikoa izan daiteke, edadetuek ez dutelako izaten aktibitate fisiko askorik. Bestalde, zenbaitzuk gauean zehar askotan esnatzen dira, lehen aipatutako loaren kalitatea ez delako nahi bezain ona.

Insomnioari dagokionez, denok izaten ditugu loa hartu ezineko sasoiak. Denbora luzean errepikatzen badira, insomnioaz hitzegin dezakegu. Hainbat



Adinean aurrera loa aldatuz doa. Loaren kantitatea baino kalitatea aldatzen da. ARTXIBOA

■ bergarako gordailutik

## KONTRABANDOAREN AURKA. HIL EDO BIZI

Imanol Sorondo

Berastegiko Ezpeleta baserrian, Nafarroako mugan, 15 kontrabandistak gorde dira suiskilu eta arma ugariekin 1764. urteko urtarrilaren 13an. Gasteiz, Agurain eta Tolosako ertzainak joan dira bertara tabakoa eskuratzerako eta kontrabandistak atxilotzerako, baina hauek tiroka hasi dira ate eta leihoetatik. Orduan ertzainek laguntza eskatu diote Berastegiko alkateari; honek elizako kanpaiak joarazi ditu eta 140 gizon laguntzera bidali arma eta makilekin. Gipuzkoako Aldun Nagusiak, Lardizabaldu Joseph Antoniok ere bidali ditu ondo armatutako beste 50 gizon, baina ez dira bertara garaiz azaldu. Bitartean, baserria miatzera joateko eskatu diote ertzainek alkateari, eta buru egiten duena eta beste 23 gizon horien baten babesean jarri dira, alkateari bere atzetik joateko eskatu ondoren.

Eguerdi ingurura ertzain nagusiak kezkatzen hasi da, gaua etorritakoan kontrabandistek ez ote duten ihes egingo tabako guztiarekin. Hitzartamen bat egin dute, eta ertzainek tabakoa, orain arte ikusi ez den kopurukoa, eskuratu dute, eta 12 kontrabandistek ihes egin dute; beste bat hila aurkitu dute, beste bat zaurituta eta azkenekoa preso daukate. Orain zurrumurrak zabaldu dira han eta hemen, ea nola litekeen kontrabandistak ihes egitea hainbeste gizon eta ertzainen eskuetatik, eta Berastegiko alkatearen aurka hitz gogorak esan dituzte bere beldurratik. Lardizabal Aldun Nagusiak, eskutitz bat idatzi dio Bergarako alkateari Berastegikoaren izen ona berreskuratu nahian; alkate hori ba omen zihozko baserriara “hil edo bizi” esan ondoren, eta han zegoen iskribauak beste proposamen bat egin ziola bidatzen zihozko. Beste idatzi bat ere etorri da Bergarara: 100 dukat eskaintzen dituzte atxilotutako kontrabandista bakoitzeko, eta 200 beraien burua derausotar Bizenterengatik.<



## Txolarte eguna



Urtean zehar **Txolarte aisialdi taldean aritzen direnak** Gipuzkoako gainerako taldeekin bildu ziren uda aurretik. Gipuzkoan 11 Txolarte talde daude eta aurtengo Txolarte egunaren antolaketa Bergarako taldeari tokatu zitzaion. Guztira, **200 lagun** inguru (begirale eta guzti) bildu ziren **Altzasan**. Eguraldiak gehiegi lagundu ez bazuen ere, dantzarien agurraren ondoren, partaideek primeran pasatu zuten antolatutako jolasekin eta ekitaldiekin. Bazkariaren ondoren, dantaldia izan zen eta giro ona izan zen nagusi eguneari zehar. Bergarako Txolartek laister emango dio hasiera aurtengo ikasturteari.



## Tourrean hirugarren

**Iokin Errasti, Aurelio Morillas** (argazkiko eskumaldean) eta **Toño Retes** bergararrak 3. saria lortu zuten Arrasateko Monte tabernak antolatutako Tourreko kinielan. Hiru lagunek talde bikaina osatu zuten (Armstrong, Zulle eta Escartin tartean) eta aukeratutako txirindulariek ez zieten hutsik egin. Tourmaleta igo barik, **248.000 pezetako saria** eskuratu zuten. Oporretan izango zuten bai, ondo disfrutatzeko aukera. Zorionak!!

ARGAZKIA: DV




## Bizkaira irteera



Udalak antolatutako jardueretan parte hartu izan duten emakumeek **Bizkaia aldera irteera** egin zuten oporren aurretik. **Eskulan eta yoga ikastaroak** amaitu ondoren, Bizkaiko hainbat herri bisiatu zituzten, tartean Bolibar, Ziortza, Lekeitio, Elantxobe, Kortezubi eta Gernika. 50 bat lagun joan ziren autobusez egun pasa eta primeran ibili ziren elkarrekin. Bazkaria Santimamiñen egin zuten eta arratsalde partean itzuli ziren herrira. Argazkian emakume eskurtsionistak Gernikako Arbolaren aurrean. Udako oporren ondoren, ikasturte berria urri aldera hasiko da. Laister arte!!





**Jose Luis Elkoro Mahai Nazionala**  
**21ean, Martuteneko espetxe batean**  
**1997ko abenduan espetxeratuta**  
**23. Martuaren 21ean, Martuteneko espetxe batean**  
**kundearen bideo bat ematearen ondorioz**  
**tegi Konstituzionalak baliorik gabe**

**Z**elakoak izan dira kartzelara igarotako hilabeteak?

**E.** Epaketan zehar sekula ez genuen pentsatu hain zigor gogorra jasoko genuenik. Kartzelara sartzea oso gogorra izan zen. Hori gutxi balitz, funtzionarioen artean gure aurkako giroa nabaritu genuen espetxeratu bezain laister. Espetxean baldintza guztiak txarrak dira, baina denborarekin ohitu egiten zara. Hasieran ezinezkoa zitzaigun ematen ziguten janaria jatea, baina handik denbora gutxira dena jaten genuen. Ikusten nuen jan beharra nuela eta azkeneko dena jaten nuen. Hala ere, 10 baki kilo galduko nituen kartzelan. Txabaloari dagokionez, oso gogorra zen hain toki txikian horrenbeste ordu pasatzea, baina moldatu beharra dago. Funtzionarioen jarrera ere aldatuz joan zen; ez dakit zein arazoirengatik, baina azkeneko tratu hobeak jasotzen genuen. Nik, behintzat, ez dut beraiekin inolako arazorik izan.

**G.** Zelako bizitza egiten zenuen kartzelan?

**E.** Igandean izan ezik, egunero egiten nuen kirola: footing, gimnasia (lehen zatze ariketak batez ere) eta pelotari. Zeramikako eskulanak ere egiten nituen, astean bitan. Ni ez naiz oso trebea horrelako lanetan, baina tira, egiten nituen itxurazko gauza batzuk. Ikasi ere egiten nuen, egunero ordu eta erdi euskara ikasten saiatzen nintzen. Neure kabuz egin dut, euskarazko klaseak ezer ez zekitenendako zirelako. Baneuzkan testu batzuk horretarako prestatuta, eta haiekin aritu naiz. Bereziki, ordu bate inguru ematen nuen kartak eta horrelakoak idazten eta beste pare bat ordu irakurtzen. Betiere euskaraz irakurtzen saiatzen nintzen eta asko aurreratu dut, lehen euskaraz batua irakurtzerakoan zailtasunak nituen eta. Hara joan arte sekula euska

**"Bake prozesua sendoz"**



ziohia aske laga zuten joan zen uztailearen  
txeate igaro ondoren. Auzitegi Gorenak  
ratu Mahai Nazionaleko kideak ETA era-  
earen leporatuta. Uztailean, oster, Auzi-  
rik goren sententzia hura.



Ezkerrean, Jose Luis Elkoro bere etxeko  
balkoian, eguazten honetan bertan.  
Orrialde honetan, uztailearen 23an  
eskaini zitzaion ongi etorriko irudiak.



raz eskutitz bat idazteke nengoen;  
orain, oster, euskaraz idazteko gauza  
naiz.

**G.** Eguna antolatuta izango zenu-  
ten...

**E.** Goizeko 8etan, errekuentoa egi-  
tera etortzen ziren; jarraian, gosaria iza-  
ten genuen; gosalduta eta gero, garbitu  
eta zuzenean kirola egitera, goizeko  
hamaika eta erdiak arte. Dutxa hartu  
ondoren, geure artean egoten ginen eta  
ordu batean bazkaldu. Ordu biak arte  
tertulian, eta gero txabolora sartzen gi-  
nen. Orduan, euskara ikasi eta idatzi  
egiten nuen, bost eta erdiak arte. Gero  
lagunekin elkartu eta pasiatu, eta zaz-  
piretan afaltzera denok. Afalostean mu-  
sean egiten genuen, eta bederatzietara-  
ko txabolotan egon behar ginen. Txa-  
bolotan ni bakarrik nengoen, eta tele-  
bistan bederatzietako informatiboa  
ikusteko ohitura neukan. Pilota eta fut-  
bola (euskal taldeen partiduak eta bes-  
telako partidu interesgarriak) ere jarrai-  
tzen nituen, dantza jaialdiak ere bai,  
"Goenkale" noizean behin... Gure he-  
rria horrela bizi nuen: telebistatik.  
Gauerdia arte esna egoten nintzen;  
12etan oheratzeko ohitura neukan, eta  
ordutegi hori zaintzen eta lanak eta ki-  
rola egiten saiatu naiz. Egun bakar ba-  
tean ere ez dut kirolarekin hutsik egin.

**G.** Zelako harremanak zenituen  
kartzelan?

**E.** Preso politikoak elkarrekin ego-  
ten ginen. Mahai Nazionaleko zortzi la-  
gun ginen (zazpi gizonezko eta Itziar  
Aizpurua) eta gero preso politikoak  
zeuden, tartean Luis Mari Askargorta  
"Kanto" bergararra. Geure artean egi-  
ten genuen bizimodua; batzuetan ba-  
tzuekin; bestetan beste batzuekin...

Preso komunekin ere harremana ona  
geneukan, ez dugu inolako arazorik  
izan.

**G.** Momentu txarrik igaro duzu?

**E.** Pasatu nituen bai. Sartu eta hila-  
bete eta erdira animo aldetik baju ibili  
nintzen, baina gainditu egin nuen. Nire  
semeak alde egin behar izateak ere in-  
pakto handia egin zidan, eta gure etxea  
erre zutenean ere bai. Niretako oso  
momentu gogorak izan ziren. Larri eta  
inpotente sentitzen nintzen kartzelan,  
eta momentu zailak izan ziren. Egineko  
sumarioaren kontuarekin ere Madriler  
joan behar izan nintzen pare bat aldiz,  
baldintza eskasetan, eta orduan ere  
nahiko gaizki pasatu nuen. Soto del Re-  
aleko espetxera eraman ninduten, eta  
niri tokatu zitzaidan moduloa nahiko  
arrikutsua zen. Horrez aparte, hotz ika-  
ragarria egiten zuen, kartzela Navace-  
rredan dago eta, 1.000 metrotik gora.  
Ziegako berogailuak hondatuta zeu-  
den, eta ez zegoen bertan egoterik.

**G.** Bisitak izango ziren momenturik  
onenak...

**E.** Asteburuan bi izaten nituen, 20  
minutukoa bakoitza, eta hilean bi "vis a  
vis". Bata emaztearekin eta bestea fami-  
liarekin. Gainontzeko bisitak baldintza  
eskasagoetan izaten ziren, barroteak  
tartean. Enpresako zuzendaritzaren bi-  
sita berezia ere izaten nuen astero; en-  
presatik baimena eskatu zuten eta  
eman egin zieten. Igande askotan Xa-  
bier Azkoitia Santa Marinako apaiza  
etortzen zen, berarekin batera Antzuo-  
lako neska bat eta Ordiziko mutil bat,  
"pastoral carcelaria" izeneko baimen  
berezia zutenak. Aperribai, Elgetan  
apaiz dagoena ere pare bat aldiz etorri  
zitzaidan; Felix Garitano Donostian da-

goen apaiz bergararra..., eta Mariaren  
Lagundiako monjak, monja zaharre-  
nak, ospitaleko monjen idatziak ere ja-  
so ditut. Bergarako jende askoren es-  
kutitzak jaso ditut. Jende gazteak ere  
idatzi dit. Espetxean gauza txiki askok  
handi bat egiten dute. Jende askok bis-  
tatu nau, eta beste batzuk ezin izan du-  
te. Herriari eskerrak eman nahi dizkiot,  
ondo erantzun duelako.

**G.** Espetxean igarotako denboran  
aldaketa garrantzitsuak izan dira Euskal  
Herrian: ETaren su-etena, Lizarra-Gara-  
ziko akordioa, Euskal Herriko Udal Or-  
dezkarrien Biltzarra, hauteskundeak ere  
izan dira... Zela bizi izan dituzu albiste  
horiek?

**E.** Oso itxaropentsu agertu nintzen  
Lizarra-Garaziko akordioarekin eta  
ETaren su-etinarekin. Bake prozesuak,  
agian, ez du izan guk nahi genuen  
abiada, baina aurrera doa. Urriko hau-  
teskunde autonomikoak eta azkenen-  
goak ere onak atera dira, guretako  
onak eta nik uste dut Euskal Herriko  
ere orokorrean onak izan direla. Behar-  
bada, EAJ-EAK ez du lortu espero zi-  
tuen emaitzak, baina analisi orokor bat  
eginez, onak direla uste dut. Nahiz eta  
Gasteizko alkatetza eta Arabako Foru  
Aldundia abertzaleen esku ez izan.

**G.** Azken egunotako adirerazpenen  
ondoren, bake prozesua bide onetik  
doala uste duzu?

**E.** Bai, ez dut uste kolokan dagoe-  
nik. Horrelako gauzak sortuko dira, eta  
aurrerantzean ere ikuspuntu ezberdi-  
nak izango dira, baina nik uste dut hori

**Jose Luis Elkoro**

Mahai Nazionaleko kide ohia

"...joango dela uste dut"



gaindituta, prosezua aurrera eta sendotzen joango dela. Laister ikusiko da prozesu hori baieztatzen den. Nire iritziz aurrera egingo du.

**G.** Zer amaiera ikusten diozu?

**E.** Transizio momentu batean gaudela esango nuke: PSOE eta PPK eztabaidan dihardute eta borroka gogorra daukate, izan ere, ez batak eta ez besteak ez dauka erabateko gehiengoa ateratzeko aukerarik. Gobernuak zeinek eskuratuko duen ere zalantzan dago; orain urte batzuk, PP indartsuago zegoen. Indarrak parekatuta daude, eta elkarri begira daude, bakoitzak ETarekiko hartzen duen jarrera aztertzen. Bere boto-emaleen aurrean ez dira ausartzen urratsak ematen eta nik uste dut PP bazterrak nahasten ari dela. Datoren hauteskundeak arte horrela jarraituko dutela uste dut. Hauteskundeak igaro eta gobernu berria



osatatukoan ikusiko da zer gertatzen den, baina nik uste dut behartuta gaudela urratsak ematera. Guri komeni zaigu, baina beraiei ere bai. Eman beharreko urratsek Euskal Herriko autode-terminazioaren bidetik jo beharko lukezela uste dut, hori garbi ikusten dut, bestela hemen ez dago konponbiderik. Herriak, gehiengoak hori esaten du, eta aldarrikapen hori gero eta indar gehiago hartzen ari da. Horri behar den erantzuna eman behar zaio.

**G.** EH plataformak zuek lagatako hutsunea bete zuen. Zein balorazio egingo zenuke? Badago alderik oraingo eta lehengo Mahai Nazionalen artean?

**E.** Oso iritzi ona daukat EHren sorreraren gainean, ezker abertzaleak egoera larrian irtenbideak bilatzen badakiela erakutsi duelako. Espainiako

**“Bergarako jende askoren eskutitzak jaso ditut. Espetxean gauza txiki askok handi bat egiten dute. Herriari eskerrak eman nahi dizkiot”**

gobernuaren politikak ezker abertzalea desagertarazteko helburua zuen: gu espetxeratzea, Eginen ixtea... HB ilegalizatzeko asmoa ere bazegoen, eta hori somatu zenean EH sortu zen. Argi dago indartuta atera garela; jendea ilusionatu egin da, eta aurrera egin dugu. Aurrerapausu bat

eman dugu Jaurlaritzan legealdi paktua sinatuz eta hainbat udaletxetan (Bergaran tartean) koalizioan lan eginez, eta hori positiboa da.

Bestalde, ez dut alderik ikusten guk osatzen guren mahai nazionala eta

**“Ez dut alderik ikusten lehengo eta oraingo Mahai Nazionalen artean. Pertsonak aldatu arren, linea politikoa bera jarraitzen da”**

oraingoaren artean. Pertsonak aldatu egiten dira; bakoitzak bere izaera eta bere estiloa dauka, baina, orokorrean, linea politikoa bera jarraitzen da. Lehengo mahaiaren legealdia bukatzean dago, eta berria osatzeko garaia izango da laister. Erabakia hartzeke dago baina nik uste dut gauzek dauden bezala jarraituko dutela, nik uste oraingo mahaiak jarraituko duela. Geuk ere jarraituko dugu lanean baina ez mahaikide lanetan.

**G.** Politikan jarraitzeko asmorik?

**E.** Printzipioz ez, baina ez dut baztertzen arduren bat edukitzea.

**G.** Uztailen kaleratu zinenetik, zer egin duzu?

**E.** Espetxetik ateratakoan, oraindik pixkat tokiz kanpo nengoen, ez dakit ongi etorriko emozioak jasateko prestatuta nengoen. Ordutik atsedean hartzen ahalegindu naiz; familiarekin egoteko gosea neukan, eta Lisboara joan ginen. Nik uste dut asmatu egin gurea. Ondo etorri zitzaidan hemengo girotik alde egitea, eta aukera paregabea izan zen familiaz gozatzeko, nahiz eta semeetako bat falta izan. Gero beste toki batean izan ginen eta piskanaka banoa berriz eguneroko martxara ohi-tzen.

**G.** Orain, zer asmo?


**E.** Bueno, 64 urte dauzkat eta jubilatzea erabaki dut; jarraituko dut enpresari lotuta, baina denbora gehiena niretako izango dut. Politika mailan ez naiz sartuko, baina zereginen bat izango dut eta egunak nire gauzak egiten igaroko ditut. Badauzkat gauza batzuk pentsatuta. Bukatzeko zera esan nahi nuke: nire ardura nagusienetako bat presoan egoera dela, eta ez zaidala ahazten presoan zein bere senideen sufrimendua. Bergarako presoak ez ditut ahazten. Modu asko daude beraiei laguntzeko, baina laguntzarik onena askatasuna litzateke; horren alde borrokatzeko eskatu nahi nioke jendeari.<



  
**LASA**  
*Jatetxea*

OZAETA JAUREGIA  
Tf.: 76 10 55 Faxa: 943 76 20 29

**GOIERRI** AUTOGIDARIEN ESKOLA

  
Edozein eratako gida baimenak lortu ditzakezu

Fraiskozuri plaza 5 Tf. 943 76 41 50 BERGARA



**Minolta Vectis 25**

konpaktoa

Argazki karrete bereziduna (APS sistema)

Zoom (30-75 mm) eta flasharekin


Enfoke automatikoa

Autoesposizio programatua

Zipristinek eragiten ez diotena

33.000 pezetan baloratua

# Argazki kamera hau zuendako!



**Adi irakurleok! Oporretan argazkiak atera eta  
KIÑU argazkidendak emandako kamera hau  
zuendako izan daiteke!**

Oporretan ateratako argazkiak argitaratu nahi ditugu Berrigarán. Beraz, aurten oporretan ateratako argazkiak ekarri edo bidali itzazue BERRIGARAKO erredakziora (Errotalde jauregia z/g 20570 Bergara).

Politenak edo kuriosoan, irailaren 10ean argitaratuko ditugu. Mexikon, Noruegan, Australian, Benidormen, Galizian edo Gorlan ateratakoak izanda ere, argazkiak argitaratzeko modukoak direla uste baduzue, bidali edo ekarri itzazue.

Jasotzen ditugun argazkien egileen artean, Kiñu argazki dendak oparitutako kamara ederra zozketatuko dugu.

Anima zaitetze, uda honetan egin ezazue "klik"

Berrigara eta Kiñurekin.

**Argazkiak postaz bidaltzen badituzue,**

ipini itzazue TELEFONOA ETA IZENA,

zuekin harremanetan jartzeko.

**Irailaren 7a, martitzena, izango da azken harrera eguna.**

**KIÑU**  
Berrigara



# 2000. urteko Bergara abian

## Baskoniaren aurka egingo du debuta zapatuan Agorrosinen

**Preferente mailan eta lehen erregionalean hamabost urte izan ondoren, hirugarren mailan dugu berriz ere BKEko futbol talde nagusia.**

Gainera, denboraldi hasiera ona egin du taldeak, joan zen domekan Urritzen jokaturako partiduan puntu bat urratu baitzuen Zornotzaren aurka. Zapatuan, 17:30etan, Baskoniaren kontra estreinatuko dute bertako zaletuen aurrean kategoria berria mahoneroek.

Zuzendaritza batzordeko kideak, jokalaria eta entrenatzailea itxaropentsu agertu dira biharko partiduen aurrean. Basauriko

Baskonia, mailako talderik indartsuenetakoa da "Sestao, Zalla, Sanse edota Eibarrekin batera" Jesus Mari Biain entrenatzaileak esan digunez. Bestalde, Agorrosin futbol zelaia txukundu egin dute: "futbol zelaiko paretak, hesiak eta harmailak pintatu eta garbitzea premiazkoa zen eta, azkenean, aurtengo udan egin dugu" diosku Carlos Arnai-zek, elkarteko presidentek.

Helburua, zapatuan ahalik eta zaletu gehien hurbiltzea eta taldea animatzea da. Sarrerak 1.000 pezetan salduko dira eta horren truke tribunako harmailetan esertzeko aukera izango da. Gaztetxoek eta jubilatuek 300 pezeta ordaindu behar-

## Plantila

Entrenatzailea: Jesus Mari Biain  
Laguntzailea: Lauri Askargorta  
Ordezkarria: Luis Herzog

Markel Egaña	Atezaina	Bergara	23 urte
Urko Agirre	Atezaina	Segura	22 urte
Ander Berraondo	Atzelaria	Bergara	22 urte
Asier Rodriguez	Atzelaria	Bergara	22 urte
Jon Andueza	Atzelaria	Bergara	19 urte
Mikel Osoro	Atzelaria	Eibar	24 urte
Txonan Gallastegi	Atzelaria	Bergara	23 urte
Arkaitz Arana	Erdilaria	Bergara	23 urte
Gorka Dueñas	Erdilaria	Arrasate	22 urte
Gotzon Urzelai	Erdilaria	Bergara	19 urte
Iñigo Iriarte	Erdilaria	Bergara	24 urte
Jokin Mendiaratz	Erdilaria	Bergara	22 urte
Josetxo Lizarralde	Erdilaria	Bergara	23 urte
Oskar Maiztegi	Erdilaria	Bergara	24 urte
Gorka San Vicente	Aurrelaria	Bergara	20 urte
Iban Blanco	Aurrelaria	Bergara	21 urte
Igor Alberdi	Aurrelaria	Bergara	22 urte
Igor Larrañaga	Aurrelaria	Bergara	22 urte
Joseba Duran	Aurrelaria	Bergara	23 urte
Oxel Apraiz	Aurrelaria	Arrasate	22 urte





ko dute. Bazkideei, oster, 8.000 pezeta kostako zaie urte osorako txartela (jubilatuta eta gaztetxoei 3.000 PTA).

### AURPEGI BERRI GUTXI

Azken bi urteotan lehen erregionaletik hirugarren mailara igotzea lortu duten jokalariek gehienek ekingo diote denboraldi berriari. Beraz, iazko taldearekiko aurpegi berri gutxi ikusiko dituzte zaletuek; dena den, aldaketa batzuk izan dira. Enrike Nieto entrenatzaileak laga egin du kargua, eta bere ordeiz Jesus Mari Biain zumarragarra gidatuko du mahoneroen txalupa. Bestalde, Orioko arraunlariek traineruan daroaten izen bera eramango dute soinean, bular inguruan, bergararrek: Otsein. Horixe da aurtengo beste nobedadeetako bat. Zuzendaritza batzordeak Otsein markaren babesari lortu baitu: 500.000 pezeta urteko.

Jokalariei dagokienez, Errasti eta Francok taldea laga dute eta euren ordeiz sei jokalariek berri ekarri dituzte: Urko Agirre atezain segurarra; Jon Andueza, Realeko jubenean aritu den atzelari bergararra; Gorka Dueñas erdilari arrasatearra; Gotzon Urzelai erdilari, jubeniletatik igo dena; Oskar Maiztegi bergararra, lehen ere BKEN aritu zena eta azken urteotan futbola lagata zuena, hau ere erdilari, eta Oxel Apraiz Arrasateetik datorren aurrelaria. Horretaz gain,

beste bost jokalariren artean (Jon Gallastegi, Etor Laskurain, Luis Mari Blanco, Unai Uribealzo eta David Maestre) bi aukeratu beharko dituzte entrenatzaileak 22koa osatzeko.

### IA 16 MILIOIKO AURREKONTUA

BKEko futbol sailak ia 16 milioi pezetako aurrekontua izango du aurtengoan. Aurrekontuaren zatirik handiena talde nagusiak eroango du: bidaiak, epaileei ordaindu beharrekoa, jokalarientzako sariak....

Futbol sailak beste sei talde izango ditu aurtengoan, talde nagusiaz gain: bost harrobikoak eta beste emakumezkoena. Gorka Zelaia izango da lehen mailako jubenearen entrenatzailea; Jesus Mari Aranburu "Tximist" bigarren mailakoarena; Fernando Oregi ohorezko mailako kadetearena; Agustin Arbulu lehen mailako kadetearena, eta Pablo Gallastegi infantilarrena; azkenik, Bitor Agirrebarrenak entrenatuko du nesken taldea.

### ZUMARRAGATIK BERGARARA

Bergarara etorri aurretik Urola taldea bakarrik entrenatu du Jesus Mari Biainek. Jokalariek moduan Urola, Sanse (Gorritz, Larrañaga, Zelaia, Gajate eta abarrekin) eta Eibarren aritu zen, baina gazte zela, 22 urte zeuzkala, laga zion jokatzeari menisko eta ligamentu haustura batek behartuta.<

## Jesus Mari Biain, entrenatzailea "Mailaz jaistea ez zait burutik pasatu ere egin"

**Jesus Mari Biain 42 urteko zumarragarra ilusio handiarekin ekin dio erronka berriari. Hiru urte entrenatzeke izan ondoren, begi onez hartu du BKEk egin dion eskaintza.**

**G.** Hilabete inguru daramazu Bergaran entrenatzen. Zer inpresio?

**E.** Pozik nago jokalariek lainerako erakutsitako jarrerarekin. Zumarragan ere talde gaztea izan nuen eta Bergarakoa bezala, gehienbat bertako jokalariz osatua. Horrek asko animatu ninduen Bergarara etortzeko.

**G.** Taldearen sendotasunak eta ahultasunak?

**E.** Jokalariren bat nabarmendu baino, talde osoa azpimarratuko nuke. Egia da ohiko golegileak falta zaizki-

gula, baina jokalariek ez dituzte oso ondo ezagutzen eta ustekabe atseginak har ditzakegu urtean zehar. Kontuan izan behar da Errasti eta Francok egin zituztela tadearen gol gehienak iaz eta hauek aurtengo ez daudela, baina itxaropen handiak dituzte taldean.

**G.** Aurtengo helburua?

**E.** Mailari eustea. Zuzendaritzakoek esan didate mailaz jaisten bagara ez dela ezer gertatuko, baina hori ez zait burutik pasatu ere egin. Bestela etxean geratuko nintzateke.

**G.** Zornotzan lortutako berdinketarekin pozik?

**E.** Bai, taldeak itxura polita erakutsi zuen eta. Gainera, markagailuan aurreratu egin ginen eta partidua geure eskuetan izan genuen, baina zoritxarreko jokaldi batean berdinketaren gola egin zigun Zornotzak.

**G.** Eta zapatuan, zaletuen aurrean debuta...

**E.** Partidu zaila izango da Baskonia Athletic-en harrobiko taldea da eta. Kalitate handiko jokalariek dituzte, gazteak izan arren. Gainera, uztailaz geroztik dihardute entrenatzen eta sasoi puntu onean daude.



## BEHEKO TABERNA

Menestra eta konejoa dira gure berezitasunak

ANGIOZAR Tf.: 943 76 55 74

## ETXE BERRIA

ERLOJUTEGIA-BITXITEGIA

Bidekurutzeta 16 BERGARA  
Tf. 943 76 23 94 / 943 76 12 65

## IKUSBI

ALKANDORAK,  
JERTSEAK, BAKEROAK  
ETA OSAGARRIAK

Irala 5 ☎ 943 76 53 09



# Baleike, Zutaz Pentsatzen eta Gore taldeak Ipintzako futbol txapelketako irabazleak

**Baleike** eta Zutaz Pentsatzen nesketan eta Gore mutiletan izan dira aurtengo Ipintzako futbol txapelketako irabazleak. Uztailaren 16an jokatu ziren neska nagusien eta kadeteen finalak; mutilena, ostera, uztailaren 23an jokatu zen, Agorrosin. Jendetza handia bildu zen nesken zein mutilen azken partiduak eta ondoren izandako sari banaketa ikusteko.

Emakumezkoetan, kadete mailan, Baleikekoak 3 eta 1 nagusitu zitzaizkien Aldrebesak taldekoei, txapelketako ustekabe atseginenetakoei. Nagusien mailan, ostera, parekatuagoa izan zen Zutaz Pentsatzen eta Lai Lai Lai taldeen arteko neurketa, azkenean Zutaz Pentsatzen taldeak 3 eta 1 irabazi arren. Golegilei dagokienez, Lorea de Castro (Baleike) kadete mailan eta Eva Alzas (Biko) nagusietan izan dira onenak. Golik gutxien jaso duten atezainak, berriz, Miren Alberdi eta Jo-ne Lasagabaster izan dira.

Mutilen txapelketako finala, bestalde, Agorrosingo berdegunean jokatu zen eta bertako harmailak bete egin ziren Goreko gazteen eta Bildurbarek Opel Lameko beteranoen arteko partidua ikusteko. Gehiago ziren Goreren aldeko jarraitzaileak,



Goiko argazkian, Zutaz Pentsatzen eta Lai Lai Lai taldekoak. Behean, Gore eta Bildurbarek Opel Lamekoak.

nahiz eta iazko txapelidunen aldeko oihuak ere entzun ziren.

Gorek 2 gol sartu zituen lehen zatian eta bigarrenaren erdialdean Bildurbarek Opel Lamek berea egin bazuen ere, ezin izan zuen berdindu; azken minutue-

tan, 3. gola sartu zuen Gorek. Den den, finala emaitzak erakusten duena baino parekatuagoa izan zen.

Partidu ostean sari banaketa egin zen. Finaleko bi taldeetako kapitainek sari bana jaso zuten. Golegile onenarena, berriz, Igor La-

rañagak (Gore); atezain onenarena, Ander Garitano (Arloteak) eta Julian Rodriguezek (Mongatxurak); beteranoenarena, Dani Olabarriak (Ezinleike) eta finaleko jokalaririk, onenarena, Ibon Larrañagak (Bildurbarek Opel Lam).<





# Gimnasioa zabalik Kiroldegian

**Uztailetik** zabalik dago Labegaraietako Kiroldegiko gimnasio berria. Kirol Zerbitzuko arduradunen arabera, aipatutako gimnasioa nagusiki Kiroldegian entrenatzen duten taldeei zuzenduta dago baina Kirol Zerbitzuko bazkideek ere erabiltzeko aukera izango dute, bazkide karneta erakutsiz gero. Oraingoz, muskulazioa lantzeko hamar bat makina jarri dira (Martin Fiz atletaren Okati enpresari erositakoak) sarrera aldeko aldagelenganean eta datozen egunetan makina bakoitza behar bezala erabiltzeko karteltxo batzuk jarriko dira. Gimnasioaren ordutegia Kiroldegikoaren berdina izango da eta astebarruan, beraz, 9:00etatik 22:00ak arte izango da zabalik. Astebukeran,

berriz, goizeko 9:00etatik 19:00ak bitartean erabili ahal izango da gimnasioa, eguerdian itxita izango delarik. Bestalde, Agorrosingo igerilekuetako gimnasioan ere bizikleta, arrauna eta stepeko makina berriak jarri dira udan.

## FUTBITO TXAPELKETA MARTXAN

Bestalde, Labegaraietako XIV. Aretu Futboleko Txapelketarako izena emateko epea irailaren 14ra arte zabalik izango da. Parte hartu nahi duten taldeek Lagunak elkarteak Euskadiko Kutxan irekitako kontu korrontean (0090 03 3922-2 zenbakia) 22.000 pezetako ingresoa egin beharko dute. Era berean, jokalarien zerrenda eta bakoitzaren N.A.N.aren



Kiroldegiko gimnasioa bereziki taldeei zuzenduta dago.

ARTXIBOA

fotokopia eta ordezkariaren izen-abizenak eta telefonoa aurkeztu beharko dira. Txapelketa irailaren 25ean hasiko da eta, aurretik, irailaren 14an, ordezkarien batzarra

egingo da, 18:30etan Kultur Etxean. Esan bezala, txapelketaren 14. edizioa izango da aurtengoa eta aurreko edizioan bezala lau multzo bereiztuko dira.<



## SHOTOKAN KARATE-DO



• Gure lagunei eta gurekin karatea ikasi nahi duten guztiei gogoratzen diegu, denboraldi honetako klaseak hil honen 6an, astelehena, hasiko direla, ondorengo orduetan:

**Umeak: 18:00etatik 19:00etara**

**Nagusiak: 19:00etatik 20:30etara.**

• Ikastaroak **Joxean Iñarra** irakasleak emango ditu, titulu hauen jabeak:

Gorputz hezkuntzako lizentziatua (INEF)

Karateko gerriko beltza 2. Dan-a

Ninjitsu gerriko beltza 2. dan-a

Karate entrenatzailea

Ninjitsu entrenatzailea

Karate-epailea

eta, gainera, Karateari buruzko material

didaktikoa gertatzeko Deba Garaiko

Mankomunitatearen beka lortua duena.

• Oharra: **hileko kuota 3.000 pezetakoa izango da** (matrikula doan).

Gurekin harremanetan jartzeko deitu 943 76 07 21 telefonora 21.00 eta 22.30 artean edo zatoz Miguel Altuna berriko gimnasiaora entrenamendu-ordutan.



*Shotokan txapelaldunen eskola!*



**1. ETXEBIZITZAK**

**SALDU**

Masterreka. Amueblatua. 941 24 39 02.

Lizarratik 5 km.ra pisua salgai. 943 76 23 12.

Pisua salgai Koldo Eleizalden. 943 76 32 77.

Etxe berritua Urteagan, 130 m<sup>2</sup>. 943 76 08 79 (19:00etatik aurrera).

Apartamentua Zubiaurren. 943 76 11 13.

Bidekurutzeta. 250 m<sup>2</sup> ganbara. 943 76 21 80.

Zubiaurre. 943 76 49 30.

Pisua salgai Huelvan, garajeduna. 943 76 40 25.

**ERRENTAN EMATEKO**

Bi oheko logela alokairuan Aretxabaletan. 943 77 12 54.

Fraiskozuri. 943 76 15 40.

Pisu amueblatua Antzuolan. 943 76 21 06.

**ERRENTAN HARTZEKO**

Pisua alokairuan hartu nuke. 656 71 25 81.

# Iragarki sailkatuak

Iragarkia DOAN jartzeko, zatoz Berrigarara edo deitu telefonoz, 943 76 03 97, martitzen eguerdia baino lehen. Berrigarak ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

## Zure iragarkia ia 16.000 lagunek irakurri dezakete!

**1. ETXEBIZITZAK**  
Saldu  
Erosi  
Errentan emateko  
Errentan hartzeko  
Etxe konpartituak  
Bestelakoak

**3. LOKALAK**  
Saldu  
Erosi  
Errentan emateko  
Errentan hartzeko  
Bestelakoak

**5. IRAKASKUNTZA**  
Eskaintzak  
Eskaerak  
Bestelakoak

**8. DENETARIK**  
Saldu  
Erosi  
Eman  
Hartu  
Trukatu  
Galdu  
Aurkitu  
Bestelakoak

**2. GARAJEAK**  
Saldu  
Erosi  
Errentan emateko  
Errentan hartzeko  
Bestelakoak

**4. LANA**  
Eskaintzak  
Eskaerak  
Bestelakoak

**7. ANIMALIAK**  
Saldu  
Erosi  
Bestelakoak

**9. HARREMANAK**  
Agurrak  
Kontaktuak  
Deiak  
Bestelakoak

**ETXE KONPARTITUAU**

Bilbon pisua konpartitzeko laguna behar da. 943 76 03 21.

Bilbo. Lagun bat edo bi behar dira. 943 76 28 17 / 76 12 14.

Bilbo (S. Inazio). Bi lagun behar dira. 943 77 13 77 / 945 44 50 53.

**2. GARAJEAK**

**SALDU**

Garajea salgai Zubiaurren. 943 76 08 89.

Garajea saldu edo alokatzen da. 943 76 40 03.

Ibargarai. 943 76 00 93.

Garajea salgai Boni Laskurainen. 943 76 18 85.

Garajea salgai Ibargarain. 943 76 44 25.

Martzial Agirren garaje bikoitza salgai. 943 76 33 88.

Espoloia. Garajea salgai edo alokairuan. 943 76 42 86.

**3. LOKALAK**

**SALDU**

Zubiaurren. 100 m<sup>2</sup>. 13,5 milioi. 943 76 11 13.

**ERRENTAN EMATEKO**

Erreformatutako lokal komertziala alokairuan San Pedron. 943 76 57 69.

S. Pedron. 943 76 10 39.

Zubietan 136 m<sup>2</sup>. 943 76 08 18.

Ibargarain, bulego lane-

tarako prestatuta. 607 34 46 58.

Lokala Martokon, prezio onean. 943 76 11 13.

**4. LANA**

**ESKAINTZAK**

Etxe lanak edo haurrak zaindu. Esperientzia. 943 76 72 32 (Ana).

Mutila lanerako gertu. 943 76 04 40.

Neskak, goizez, haurrak zaindu edo etxe lanak.

943 76 46 07.

Pertsona nagusiak zaintzen ditut gaez. 610 01 06 19

Neska batek garbiketatu lanak egin edo denda batean lan egingo luke. 943 76 35 38.

Arratsaldez lan egingo nuke. 943 76 52 39.

Neskak goizez haurrak zaindu edo denda lan. 943 76 53 71 (Maite).

Emakumeak etxe lanak edo atariak garbitu. 619 52 98 04.

Emakume esperientziadunak denda lan egingo luke. 943 76 07 69.

Lanak ordenadorez pasatzen ditut. 943 76 10 94 (arratsaldez).

Emakume erdaldun batek nagusiak zaindu edo etxe lanak egingo luke. 943 76 09 33.

Aita bazara edo izateko bazara eta haurra gehien moduan ez baduzu hezi nahi, deitu. 943 76 65 12 (Emilien).

**ESKAERAK**

Etxe lanerako eta

**POL-POL**  
**Taberna**  
☎ 943 76 07 78

**Bolu**  
*liburutegia*

**Enmarkazioak**  
**Ispiluak neurria**  
**Zurezko artikulua**  
**Bergarako oleo eta**  
**lumaxoak**

Koldo Elizalde 1, behea  
Tf. 943 76 70 60

**Usoa Pub**

☎ 943 76 38 57  
Irala 1

**Tabernako barran**  
**lan egiteko**  
**esperientziadun**  
**laguna behar da**

943 76 20 40

**GURIA**  
**Taberna**

Bidekurutzeta 5  
☎ 943 76 20 34

**OILAGORRA**  
**TABERNA**

Barrenkalea 21 BERGARA



ume bat zaintzeko neska euskalduna behar da Antzuolan. 943 76 64 24.

Etxean lan egiteko neska euskalduna behar da. 943 76 54 24 (gazez).

Neska behar da haurrak zaindu eta etxeko lanetarako. 943 76 31 86.

30 urtetik gorako emakumea behar da pertsona edadetua zaintzeko. 629 26 39 45.

Neska behar da etxeko lanetarako. 943 76 31 11.

Bi haur zaindu eta etxeko lanetarako neska behar da. 943 76 15 61 (gazez).

**5. IRAKASKUNTZA**

**ESKAINTZAK**

Ingeles filologian lizentziatuak klaseak ematen ditu. 943 76 30 28.

OHO eta BBB klaseak. 943 76 33 26.

Ingeles klaseak. Esperientzia. 943 76 51 23.

Ingeles klaseak. 943 76 25 79 (Nuria).

OHO eta DBH klaseak. 943 76 26 27 (Ainhoa).

OHO. 943 76 37 94.

Hezkuntza berezian diplomatuak klaseak irailan. 943 76 31 79.

**6. IBILGAILUAK**

**SALDU**

Renault Clio Williams (SS-AP) eta Suzuki 410 SJ (B-HD). 945 24 11 25

Fiesta 1300 (SS-W) prezio ona. 943 76 63 29.

Honda NSR 80 motorra salgai. 943 76 31 52.

Golf GTI. 943 76 05 96.

Renault 19 TXE 1.7. Aire egokitua. 250.000 pezeta. 943 76 19 56.

Peugeot 205. Prezio ona 943 76 36 74.

Honda CBR 600 F motorra. 630 56 55 06.

Yamaha 600 Diversion motorra. 943 76 08 83.

Karabana plegablea. 943 76 29 29.

Ford Sierra 2.3 diesela (SS-U). 943 76 40 54.

Kawasaki GPZ 400 motorra. 943 73 18 72 /73 12 82.

Yamaha Jog Scooter motorra (90 cc.) salgai 943 73 18 72/73 12 82.

Citroen Saxo 1.1i. Bi urte. 943 76 12 66 (Xabi).

Chrysler kotxea salgai. 943 76 42 76.

Peugeot 405 Mi 16. 943 76 03 01.

**7. ANIMALIAK**

**SALDU**

Artzain aleman txakurkumeak. Pedigreedunak. 696 05 73 46.

**8. DENETARIK**

**SALDU**

Kanpineko karro denda salgai. 943 76 64 65.

Fotokopiadora, faxa eta lanerako mahaia. 607 34 36 58.

Ume-kotxe estalkiduna. 943 76 06 89.

Karro denda. Ondo ekipatuta. 943 76 42 86.

Minolta argazki kamara, flaxa eta Takumar objektiboa. 943 79 06 15.

Kanpinerako "Igloo"

hozgailua. 943 76 41 21.

Bi ohe, idazmahaia, altxariak eta apalak. Haritz egurra. 943 76 43 37.

Merida mendi bizikleta, berri-berria. Aluminiokoa. 943 76 05 88.

Ezkontza erreportajeak egiten ditut. 943 76 13 35.

Erretratuak marrazkiz egiten ditut pastel margoekin. 943 76 44 27.

Idazmakina elektronikoa. 943 76 42 76.

Play station bat salgai: mandoa, memory card-a, lau joku eta pistola bat. 943 76 52 16.

**EROSI**

Bigarren eskuko hozgailua erosiko nuke. 943 76 10 60.

2. eskuko botoidun akordeoia. 943 76 10 60.

Singleak eta LPak erositen ditut. 943 52 65 77.

**GALDU**

BH Florida mendi bizikleta galdu nuen uztailan, larrosa-urdina kolorekoa. 943 76 30 12.



**Langai**

Euskal Lan Zerbitzua

**DELINEATZAILEA**  
Ibai eskuinaldea.  
20927/2

**TORNULARI-FRESATZAILEA**  
Deba Behea. 21529/2

**MAHAI ZERBITZARIA**  
Foronda aireportua.  
21641/6

**TAILER ARDURADUNA**  
Bilbo. 21669/4

**ALTZARI MUNTATZAILEA**  
Bilbo. 21760/5

**BILTEGIZAINA**  
Arratia-Nerbioi.  
21823/5

**ERDIAUTOMATIKAN SOLDATZAILEA**  
Ibai ezkerrekoa.  
21893/4

**DENDARIA**  
Bilbo. 21923/5

**BILTEGIRAKO ADMINISTRARIA**  
Bilbo. 21950/7

**LHI MEKANIKARIA**  
Bilbo. 21962/2

**LHII MEKANIKARIA**  
Ibai eskuinaldea.  
21992/2

**LHII MEKANIKARIA**  
Bilbo. 21997/4

**FABRIKAZIO ARDURADUNA**  
Markina-Ondarroa.  
22006/2

**SUKALDARI LAGUNTZAILEA**  
Gernika-Bermeo.  
22045/4

**MEKANIKA MANTENIMENDUA**  
Ibai eskuinaldea.  
22159/2

**PEDAGOGI AHOLKULARIAK, 2**  
Iparralderako. 22268/0

**Lan eskaintzaren bat interesatzen bazaizu, erreferentzia hartu eta eskatu informazioa.**  
Langai Udalteixean: astelehen, eguazten eta eguakitzetan 9:00etatik 13:00era.  
Telefona: 943 77 91 65, Maria Jesus Unamuno.

**Zapatu eta domeka arratsaldeetan dendan lan egiteko neska euskalduna behar da**

943 76 23 89

**Domeka eta jaiegun goizetan dendan lan egiteko neska behar da. Gidabaimena beharrezkoa**

943 76 02 57

**PINTXO eta BOKADILOAK SEKULAKO MARTXA!!**

**EUXEBIO II**

Irala z/g ☎ 943 76 07 92

**ANTIA**

**HARATEGIA URDAITEGIA**


*Txahal, idi, txerri, bildots, untxi eta baserriko oilaskoak.*

Matxiategi 8 ☎ 943 76 15 09


**Begirale ikastaroa**

Eusko Jaurlaritzak homologatutako Begirale Titulua eskuratzeko aukera aparta

- **Ikastaroan landuko diren gaiak** pedagogia, talde dinamika, psikologia, euskal jolasak, haurren jolasak, udalekuak...
- **Urritik maiatzerako iraupena** 200 ordu teoriarako, 25 bakarkako lanetarako eta 120 praktiketarako. Asteburuetan.
- **Matrikularen prezioa** 30.000 pezeta; 35.000, bazkide ez direnentzat.
- **Izena ematea** Jardun elkarte. Juan Irazabal z/g (Kartzela zaharra). 943 76 08 19 / 76 36 61. Epea: irailaren 6tik 17ra.
- **Plaza mugatuak!**







# IPINTZA institutua

1999/2000 ikasturtea

## DBH kurtso hasierako aurkezpena

IRAILAREN 7an IZANGO DA

DBH 1. maila. . . . . goizeko 10:00etan.

DBH 2. maila. . . . . goizeko 10:15etan.

DBH 3. maila. . . . . goizeko 10:30etan.

DBH 4. maila. . . . . goizeko 10:45etan.

## Batxilergo kurtso hasierako aurkezpena

IRAILAREN 9an IZANGO DA

1. maila. . . . . goizeko 11:00etan.

2. maila. . . . . goizeko 11:30etan.

Ipintza institutua: Boni Laskurain 19. Tf: 943 76 31 42/43

## LA PUERTA AL INGLES, S. L.

1999-2000 IKASTURTEA MATRIKULA ZABALIK

**INGELES  
nahiz  
ALEMANA**

- Maila guztiak
- 5-7 urtekoentzako hasierako taldeak, astean bi ordu
- Azterketetarako prestakuntza
- Enpresentzako klaseak
- Banakako klaseak



*Kurtso hasiera  
irailaren 13an*



INFORMAZIOA: Burdiñate 5, Bergara Tf. 943 76 30 01



# Zabalik da arte gunea

## San Martinetarako erakusketa gertatuko dute

**Beart** Bergarako Artisten Elkarteko lokal berria San Martinetan irekiko da berriz publikora. Boluko arte gune berria joan zen uztailaren 16an inauguratu zen eta lehenbiziko erakusketan herriko artistak izan ziren protagonista nagusiak. Uztailaren 25era arte ikusgai egon ziren hainbat herritarren pintura, eskultura eta zeramika lanak eta bergarrek, arteaz gozatzeaz gain, lokal berria ezagutzeko aukera izan zuten. Abuztuko oporraldiaren ondoren, San Martinetan erakusketa berria egingo da, jaietako margo lehia- ketara aurkeztutako lan onenekin. Aipatutako erakusketa Kultur Etxean egin izan da orain arte. Parte hartzaileek Boluko lokal berrian seilatu beharko dituzte euren lanak eta sari banaketa ere bertan egingo da.

### PINTURA ETA MARRAZKETA IKASTAROA

Bearteko ordezkariak oraindik ez dituzte zehaztu lokalean egingo diren aktibitateak. Rikardo Azkargorta Bearteko presidentearen arabera, "lehenik eta behin pintura eta marrazketa ikastaro bat antolatzeke asmoa dauka-gu eta hortik aurrera bazkideek beraiek eta lokala erabiltzen dutenek erabaki beharko dute zer nolako gauzak programatzen diren. Ikusi egin beharko

dugu bazkide egiteko deialdiak zelako erantzuna jasotzen duen eta gero jendearen ideiak eta proposamenak aztertuko dira. Denon artean erabaki beharko dugu arte lokalari ematen zaion erabilera". Bearteko kideak oso pozik azaldu ziren inaugurazio ekitaldian, azken urteotan Udalarekin izandako negoziazioen ondorioz, artistak elkarrekin lanean aritzeko egoitza egokia lortu izanagatik. Inaugurazio ekitaldian Bearteko ordezkariak, Udaleko agintariak eta hainbat herritar bildu ziren.<



Uztailen arte gunea inauguratu zen eguneko irudi bat.

■ salduenak / uztaila

## LIBURUAK

### Euskaraz

1. BERANDU DA GELDITZEKO  
Unai Iturriaga. Susa
2. AGIRRE ZAHARRAREN...  
Koldo Izagirre. Elkar
3. ESKU BAKARRAREKIN IRAKURTZEKO  
P. Cristobal. Pamiela
4. EUSKAL IZENAK  
Mikel Hoyos. Xenpelar
5. PUTZU  
Txillardegui. Elkar

### Erdaraz

1. HISTORIA DE UN RAPTO  
J.A. Azpiazu. Erein
  2. AL ROMPER EL ALBA  
E. Hemingway. Planeta
  3. MEMORIAS DE UNA GEISHA  
A. Golden. Alfaguara
  4. EL TESTAMENTO  
J. Grisham. Ediciones B
  5. EL DIENTE DE LA BALLENA  
C. Rodriguez. Alfaguara
- Iturria: Etxepare-Bilintx*

## DISKOAK

1. LATE AT NIGHT  
Dover
2. 1987-89  
Su Ta Gar
3. GOLD  
Abba
4. BRIGATISTAK SOUND SYSTEM  
Fermin Muguruza
5. SURRENDER  
Chemical Brothers
6. CALIFORNICATION  
Red Hot Chili Peppers
7. TODO MANA  
Mana

*Iturria: Etxepare-Bilintx*



# ETXEPARE-BILINTX



## LIBURUDENDA

### Liburuak eta diskoak

Ibargarai 12 ☎ 943 76 40 50 BERGARA



denborapasa / LUMA

1	2	3	4	5	6	7	8	9	10
2									
3									
4									
5									
6									
7									
8									
9									
10									

**Ezker eskuma**

1. Gonbita. 2. Begirunea, onginahia. 3. Zein. Iparraldean, orain. Azkenekoa. 4. Egokiak. Lehen biak. ...egin, goitik ari. 5. Röntgen. Nafarrerria. 6. Ahuntzaren ar. Uranioa. Zangoatal. 7. Gipuzkoako herria. Kanpo. 8. Gipuzkoako herria. Luzera handiko. Bokala. 9. Irria. Infusio-mota. 10. Arabako herria. Harriak.

**Goitik behera**

1. Ganorabako. 2. Gizon izena. Portuak. 3. Adoleszentzia. 4. Zaenbaki bikoiti. Lasterketetarako auto txiki. Kontsonante bikoitza. 5. Arnas ezak hil. Azkenekoa. Hitz. 6. Zuloak egiteko erraminta. 7. Arbasoa. Uztailaren hasieran. Mila. 8. Emakume izena. Har ezan! Bizkaieraz, ote. 9. Noren atzikia. Eguneroko jakia. Bizkaiko herria. 10. Nazkagarriak.

**Soluzioa**

10. Nazkanteak  
9. En. Ogi. Ea.  
Asaba. Uz. M. 8. Pui. Noi. Ete.  
10. Z. Eia. 6. Daratula.  
1. Nerabero. 4. Bi. Kart. Ri.  
Ganoragabe. 2. Odon. Katak.  
Goitik behera  
Barra. Tea. 10. Ekora. Meak.  
7. Gzeli. At. 8. Aia. Luze. E.  
8. Baztanga. 6. Akor. U. Din.  
1. Nor. Ori. Z. 4. Onak. Ab. Ok.  
Gonbidapen. 2. Adeltasuna.  
Ezker eskuma

**bonofotoa**




Miguel Angel Elkoroberezibar

**Zein urtetako irailaren 1ean inauguratu zuten Oxirondo plazan dagoen azoka?**

**galde debalde**

**Arretaz irakurri duzu Berrigara? Ea galdera hauei erantzuten diezun!**

1. Zenbat nitxo berri eraikiko dituzte Matxiategiko kanposantuan?  
A- 203  
B- 105  
C- 101
2. Ze izen zuen joan zen zapatuan Osintxun sakrifikatu zen txekorrak?  
A- Beltxa  
B- Adarmotz  
C- Rufino
3. Ipintzako txapelketan, nesken kedeta mailan ze talde izan da txapeldun aurten?  
A- Ezinleike  
B- Izanzeiken  
C- Baleike



Super BMk emandako 5.000 pezetako erosketa-bonoa zozketatuko du BERRIGARAK asmatzaileron artean!



Aurreko aleko saria, **Maialen Odriozolarentzat** izan da Mekolalde jatetxean bi lagunendako afaria. Zorionak Maialeni! Galderen erantzun zuzenak hauek ziren: Bonofotoa: **Madura / S. Lorentzo eguna** (VIII-10) Galde Debalde: **1-A, 2-C, 3-A**

**BONOFOTOA**

**GALDE DEBALDE**

1:                      2:                      3:

Izen-deiturak:

Telefonoa:

Ekarri txartela **EGUAZTEN EGUERDIRAKO** Berrigarara! SARI EDERRA IRABAZ DEZAKEZU!

**Koipe**  
oliba olio (1°)  
Litroko botela  
**495 PTA!**  
**Super BMen beti eskaintzarik onenak!**



**Mutrikuarra jaiotzez, Pedro Salegi (62 urte) harri artian ibili da bere bizi guztixan, batzutan, marmolerixan lanian eta bestetan, Euskal Herriko harrijasotzailerik onenak gertatzen. Ezkonduta dago, eta alaba bakarra dauka.**

**Zer dela eta mutrikuar bat Bergaran?**

Orain dela 30 bat urte Basalgon kanposantu berrixa egitteko proiektua zegoen, eta orduan etorri ginen. Pentsau...

**Zergatik marmolero?**

Beti gustau izan jat, 15 urterekin hasi nintzen harrixa egitten

**Zela ikasi ziñuan ofiziu?**

Deban, beste hargin batekin.

**Zelako lanak egitten ditzuzue?**

Kanposantukuak gehixen, sukalde gaiñak bebai, fatxadak, jaso harrixak...

**Harrixak nondik ekartzen ditzuzue?**

Granitua Usurbildik, harri zurixa Almeriatik, grisa Debatik..., toki askotatik.

**Zu zeu harrixa jasotzen ibilittakua zara?**

Mutrikun, Kalbarixuan bai, bestela ez.

**Harrijasotzailerik onena?**

Perurena, edozein harritara ondoen moldau delako. Harri txikixekin Zelai izan da onena.

**Eta promesarik onena?**

Perurenaren semia, Inazio. Harri handixekin oso aurrera sartuko da.

**Teknikak zenbateko garrantzia dauka?**

Gaztien kasuan %30a esango nuke, baiña teknika ibilixaz hartzen da.

**Nikolas Agirrezabal zenari eskainitako omenaldia izango da 26xan.**

Bai, kartel ona osatu da, eta Iñaki Eguren osintxuarra be 125 kiloko harrixarekin entrenatzen dabil.

# Pedro Salegi

**Zer egin dozu abuztuan?**

Lehenengo astian lana, gero oporrak.

**Euskal Herriko txoko bat?**

Mutriku.

**Janari eta edari bat?**

Txuleta on bat eta arduu beltza.

**Gustoko bertsolari bat?**

Agirre azpeittiarra.

**Telebista ala irratixa?**

Telebista.

**Programa bat?**

Futbola eta pelotia.

**Reala ala Athletic-a?**

Athleticzalea naiz.

**Zer egingo dau aurten?**

Realaren aurretik geratu.

**Egunkarixan irakurtzen dozun lehen gauzia?**

Kiroletako kontuak.

**Zeinek irabaziko dau Donostiako Bandera?**

Oriok.

**Olanok zer egingo dau Vueltan?**

Irabazi ez behintzat...

**Nora joango ziñake gustora?**

Ameriketara, hango mendixak eta ganadua ikustera.

**Loterixan 200 milioi irabazi ezker?**

Holaxe segi.



**MIZPILDI**

**OKINDEGIA**

Matxiategi 1  
943 76 72 73

Mizpildi 8  
943 76 12 32

**INFERNUKUA  
TABERNA**

Masterreka 23 ☎ 943 76 18 49

**URRATS**  
TABERNA

**KOKTEL BEREZIAK  
GAUETAN**

Ibargarai 4  
943 76 52 92

**ARTAZI**

Katabia 1.  
943 76 27 17

**Oihalki  
metroa  
500  
pezetan!**

**LAKET**

gizon & emakume

Barrenkalea 35 BERGARA





## Kofraixetan, 1981

Joan dira aurtengo Kofraixak eta, urtero bezala, jaigiro ezin hobeza izan dute Osintxun. Oporretatik bueltan, abuztuaren amaieran, gustora hartzen diren jaiak izaten dira eta herri-ugari hurbiltzen da bertara. Goiko argazkia duela 18 urteko jaietakoa da, 1981. urtekoa alegia. Urte hartan ere auzotarrek primeran ospatu zituzten Kofraixak eta ohizko ekitaldiak izan ziren: txekor hilketa, bizikleta martxa, dantzaldia eta beste hainbat. Jasotako informazioaren arabera, hildako txekorrarekin gisatu bikaina gertatu ei zuen sukaldari profesional batek eta

jarraian osintxuarrak mahai baten bueltan bildu ziren herri bazkaria egiteko. Argazkiko atoa ere jaietako protagonistetako bat izan genuen eta hor ibiliko zen kalean gora eta kalean behera, auzotarren *taxi* gisa.

Hara hor zeintzuk diren argazkikoak, ezkerretik eskumara: Iñaki Etxaniz, Juan Luis Labaika, Mateo Larrañaga eta Mari Kontxi Garaiondo. Eskumaldean agertzen den mutila Ion Larrañaga duzue.

*Argazkia: Mari Kontxi Garaiondo*

### PROIEKTU BEREZI BATERAKO argazkiak behar ditugu

**Antzinako lanbideen** (erremendaritza, burdinola, ehungintza, karegintza, larrugintza...) argazki zahar edo berriak baldin badauzkazu, BERRIGARARA edo JARDUNERA ekartzea eskertuko genizuke. Argazki denak itzuli egingo dizkizugu.

Berrigara: Errotalde jauregia. 943 76 03 97. Jardun: Kartzela zaharra. 943 76 08 19

**CAMACHO**  
Drogeria Usaindegia  
Bidekurutzeta 24 BERGARA  
☎ 943 76 13 35

**Zumelaga**  
JATETXEA  
ZERBITZU, KALITATE, KANTITATE ETA  
PREZIOAN PAREKORIK EZ!  
San Antonio 5 BERGARA ☎ 943 76 20 21

**MEMESA**  
INDUSTRI HORNIDURAK  
Tf. 943 71 24 25



# Gidari onenek

# OHOREZKO-MATRIKULA

## merezi dute

### Aldatu zaitez MAPFREera

### Azkartu



### itzazu zure bonifikazioak

**Orain** zure automobilaren aseguruia aldatzea **ez zaizu ezer kostako.**

**Mapfrenen Ohorezko Matrikula Planarekin**, oraingo polizaren antiguedadeari eutsiko diozu (95.1.1. baino lehenago edozein konpainiatan kontratatutako polizetarako baliagarria).  
Lor ezazu **bonifikaziorik haundiena denborarik motzenera.**



## MAPFRE

Argibideak: Simon Arrieta plaza 3, Bergara. Tf. 943 76 18 80.



# Txuringo Jatetxea



Jantokia

~Menua eta karta  
~Ezkontzak  
~Jaunartzeak  
~Txerrikumea,  
bildotsa,  
baserriko oilaskoa  
labean erreta...



Terraza




Bodega

OSINTXU. Tf. 943 76 48 63



# ETXE MOBEL

MUEBLES ALTZARIAK



## BI SOLAIRUTAKO ERAKUSKETA LOGELAK-SALOIAK

Araba Etorbidea 5 (ESKATU Pabilioia, San Andres auzoa) Tf. / Faxe: 943 79 41 82  
**ARRASATE**

# GRUPO **RK AUZ**

**FAGOR**

### ALTZARIAK

### SUKALDE INTEGRALA



Araba etorbidea 20 • Tf. / Faxe: 943 79 23 51  
**ARETXABALETA**

Mitarte 3 • Tf. / Faxe: 943 77 04 55  
**ARETXABALETA**